

Jasangarritasun
memoria

2022

Informazio Ez Finantzarioaren Txostena

EU





Aurkibidea

Lehendakariaren gutuna	06
2022 zifratan	08
ONNERA taldea: berrikuntzaren eta lehiakortasunaren alde	10
▪ Negozio eredua	12
▪ Kultura korporatiboa	15
▪ Helburuak eta estrategiak	16
▪ Joerak eta arriskuak	17
▪ GJHekiko konpromisoak	18
▪ Konfiantza eta hurbiltasuna interes taldeekin	19
▪ Materialtasun azterketa	20
▪ Berrikuntza eta garapena	21
Gobernantza: lurraldean errotuta	22
▪ Gobernu egitura	24
▪ Ereduko kooperatiboa.....	26
▪ “Compliance”-a eta etika enpresariala	26
▪ Giza eskubideak.....	27
Bezeroak: produktu arduratsuak eta kalitatekoak	28
▪ Produktuen kalitatea eta segurtasuna.....	30
▪ Bezeroen gogobetetzea.....	30
▪ Eraldaketa digitala eta zibersegurtasuna	31
▪ Komunikazioa eta harremana bezeroekin.....	31
Enpresa hornitzaileak: jasangarritasuna hornidura katean	32
▪ Hornidura katearen erantzukizuna.....	34
▪ Tokiko hornitzaileak.....	35
Giza taldea: pertsonak zaintzea	36
▪ Elkartasuna oinarri	38
▪ Elkartasuna ordainsarrietan	40
▪ Lanaren antolaketa	44
▪ Harreman sozialak.....	44
▪ Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatuz.....	45
▪ Kontziliazio erantzunkidea	46
▪ Pertsonen garapena bultzatzen dugu.....	47
▪ Pertsonak zaintzen ditugu	48
Ingurumena: planetarekiko konpromisoa	50
▪ Ingurumen kudeaketa.....	52
▪ Emisioak eta klima aldaketaren aurkako borroka.....	54
▪ Baliabide naturalen kontsumo arduratsua.....	57
▪ Ekonomia zirkularra eta hondakinen kudeaketa.....	59
Gizartea: garapen komunitarioaren sustapena	64
▪ ONNERA Group ingurunearekin eta gizartearekin	66
▪ Fagor Komunitatea.....	66
▪ Debagoiena	68
▪ Euskal Autonomia Erkidegoa.....	69
▪ Garapenerako lankidetzak	70
Zerga informazioa: hazkunde ekonomiko jasagarria	72
Txosten honi buruz	74
Edukien aurkibidea	76
▪ 11/2018 Legeak eskatutako edukien aurkibidea eta GRI adierazleak.....	77
▪ Informazio osagarria, langileen inguruko gaietarako buruzko taulak	83
▪ Kanpo egiaztapena.....	89

Together in a new era

ONNERA Group sukaldaritzarako, garbitegietarako eta hotz-aplikazioetarako ekipamendu-irtenbideak eskaintzen dituen nazioarteko enpresa talde bat da.





Lehendakariaren gutuna

(2-22)

2022. urtea oso urte ona izan da ONNERA Groupentzat negozio mailan: aurreko urtean baino %37 gehiago fakturatu du eta 2021ean baino %78 emaitza handiagoak lortu ditu.

Duela hiru urte egin zen erakundearen negozio independenteen banaketa izan da negozio zifra osoen hobekuntza horretan lagundu duen gakoa. Negozio bakoitzak bere estrategiak markatzen ditu, eta egitura bat du bere erronkak eta helburuak bete ahal izateko.

Gure bezeroekin dugun konfiantza harremanak, ditugun produktu sorta zabalak eta egindako kalitatearen aldeko apustuak ere ekarpen handia egin dute emaitza horretan.

Gure hornitzaile gehienek materialen hornidura epe barruan egiteko joera hobetu dute urtean zehar, nahiz eta osagai puntual batzuekin arazoak izaten jarraitu. Entregan hobekuntza horrek, eta baita osagaien biltegi zentral bat martxan jartzeak ere, gure hornidura katea etenik gabe martxan mantentzen lagundu digute.

Lehengaien, osagaien eta energiaren kostua handitzearen ondorioz, industria kostuen efizientzia da orain lantzen ari garen eta datozen urteetan landu beharko dugun beste puntu estrategiko bat.

ONNERA Groupek 360°-ko Jasangarritasun Plan Estrategiko bat dauka zehaztuta, gizarte, ingurumen eta gobernantza gaiak barne hartuta, eta 2022an, han zehaztutako hainbat ekintza egin dira, besteak beste:

- Materialtasun bikoitzaren azterketa
- Karbono aztarnaren hiru irismenak kalkulatzeko tresna garatzea
- Erakunde kulturari buruzko inkesta
- Ekintza Sozialeko proiektuak
- Compliance proiektua
- Ekoizpenaren digitalizazio maila handitzea

ONNERA Groupen negozioak ingurumenean sortzen duen inpakturik handiena gure produktuen energia eta ur kontsumotik dator, eta, horregatik, gure produktuen garapen guztien helburua da elektrizitate, gas eta ur kontsumoak murriztea. 2022ko martxoan merkaturatu diren iKORE labe berriek %16ko energia hobekuntza dute, gure aurreko labe gamarekin alderatuta.

Gure erakundeak, compliance sistemaren ezarpenaren bidez, jokabide etikoa eta jokabide kodea betetzea sustatuko duen kultura sortzearen alde egin du, horrela erantzukizun legal eta penalak eragin ditzaketan etorkizuneko arriskuak saihestuz.

ONNERA Groupek ingurunearekiko eta gizartearekiko konpromisoari eusten dio, eta gure irabazien %10 gure ingurunearen garapen sozioekonomikoa bultzatzen duten proiektuetara bideratzen ditu.

Gure hirugarren Jasangarritasun Memoria da hau, eta, aurrekoetan bezala, gure interes taldeekin gardentasunez komunikatzen lagunduko digu.

Patxi Azpiazu

ONNERA Groupeko Kontseilu Errektoreko lehendakaria



2022 zifratan

(2-6, 2-7)

392.275.869 €-ko
Salmentak
(%62 Europan)

256 milioi €
baino gehiago
Aktiboetan

Gure produktuak
5 kontinenteetan
merkaturatzen ditugu

7 fabrikazio lantegi
Espainia, Frantzia, Polonia eta Mexikon

2.320
langile
(%60 Espainian)



Jasangarritasunean aurrera egiten ari gara

Gure 2021-2024ko Jasangarritasun Plan Estrategikoaren edukia amaitzen ari gara

Produktu, prozesu eta zerbitzuen berrikuntzaren aldeko apustu garbia dugu

Karbono aztarnaren kalkulua egiten jarraitzen dugu, bere hiru irismenetan

Gure langileen %92,2k kontratu mugagabea dute


Gure erosketen **%62,5 tokiko hornitzaileei** zuzenduta daude

305 hornitzaile ebaluatuta kalitatean eta zerbitzuan

Gure Bezero Digitalaren proiektua sendotzen dugu, gure bezeroentzako zerbitzua hobetzeko

5.039 tona baino gehiago lehengai berriztagarrietan, ia **%21**

482.376 euro baino gehiago Fagor Taldearen IPDK funtserako



ONNERA taldea:
berrikuntzaren eta
lehiakortasunaren
alde

(2-6)

ONNERA GROUP ENPRESA TALDE INTERNAZIONALA DA, ETA SUKALDARITZARAKO, GARBIKETARAKO ETA HOTZEKO APLIKAZIOETARAKO EKIPAMENDUEN SOLUZIOAK ESKAINTZEN DIHARDU.



Bere produktuak
bost kontinenteetan
merkaturatzen ditu



Zazpi fabrikazio
lantegi

ditu, munduan zehar
estrategikoki banatuta
(Espainia, Frantzia,
Polonia eta Mexikon)



2.300 profesional baino
gehiago


merkatu bakoitzera
egokitutako soluzioen
aukera zabala
eskaintzeko gai direnak

3.1. Negozio eredua

ONNERA Group-en lantegi nagusia Fagor Industrial S. Coop. da.


ONNERA GROUPEk Oñatin du bere lantegi nagusia eta hainbat fabrika filial eta bulego komertzial munduan. Diagrama

honetan fabrika guztiak jaso dira, bakoitzaren kokalekuarekin eta jarduerarekin batera, eta beheko mapan, Taldearen fabrika eta filial komertzialak mundu mailan non dauden ikus daitezke:



ONNERA GROUPEK
BERE PRODUKTUAK ETA ZERBITZUAK MUNDU OSOAN SALTZEN DITU.

● DELEGAZIO KOMERTZIALAK
● FABRIKAZIO PROPIOKO PLANTAK



Eskakizun eta konpromiso, berrikuntza eta kalitate maila gorenak partekatzen ditugu profesionalekin, eta horien beharrei erantzuten dieten produktuak eskaintzen ditugu.

03. ONNERA taldea: berrikuntzaren eta lehiakortasunaren alde

3.1. Negozio eredua

(2-6)

Fabrikatzaile liderra gara ostalaritza, kolektiboentzako sukaldaritza eta garbitegirako ekipamenduan. Eta hala gara 50 urteko esperientziaren ondoren, produktu sorta integral bat eskainiz.

(2-22)

MONDRAGON Taldeko kide gara, zeina munduko korporazio kooperatiborik handiena baita, 90 kooperatibak baino gehiagok osatua, 5 kontinenteetan 140 filial baino gehiagorekin eta lau negozio arlotan antolatuta: Finantzak, Industria, Banaketa eta Ezagutza. Mondragon Taldeak bere unibertsitatea eta I+Gko 15 zentro ditu, kooperatibak talentuz hornitzeko eta beren berrikuntza estrategiak babesteko, eta nazioartean lehiakortasunaren eredu inklusibo gisa ezaguna da.

Oro har, Mondragoneko kooperatibok 11.000 M€ baino gehiago fakturatu dugu, eta 79.931 pertsona enplegatzen ditugu mundu osoan; horietatik %45ek baino gehiagok industria arloan egiten dute lan. MONDRAGON Taldean zenbait barne lankidetzak eta elkartasun mekanismo ditugu, erresilienteagoak egiten gaituztenak, eta funtsezkoak izango direnak datozen urteetan etorriko diren eraldaketei onik aurre egiteko.


Sortu ginenetik, Fagor Taldeko kide gara; 8 kooperatibak osatutako industria talde kooperatibo bat da, urtean 1.000 M€-tik gora fakturatu du, eta 10.000 langile baino gehiago ditu mundu zabalean.

Fagor Taldeak Fagor 2030 jasangarritasun estrategia garatu du, eta horren bidez kooperatiben eraldaketa bultzatu nahi da, digitalizazioak eta jasangarritasunak gero eta eragin handiagoa duten lehia testuinguru berri batean errentagarriak izaten jarrai dezaten. Gure kooperatiben eraldaketa sustatzeaz gain, Debagoiena 2030 garapen jasangarriko sarearen kide sortzaile garen aldetik, oso inplikaturik gaude gure jardueran

industrialaren zatirik handiena hartzen duen lurraldearen jasangarritasunean. Horretarako, tokiko administrazioekin, unibertsitatearekin eta eragile sozialekin lankidetzan dihardugu, 2050. urterako Debagoiena lurralde adimendun, inklusibo eta klimatikoki neutro bihurtu nahi duten askotariko proiektuak garatzen eta finantzatzen. Fagor 2030ek berekin dakar, gainera, Fagorreko kooperatibek Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH) konpromiso esplizituak hartzea, gure ekarpena 1, 4, 5, 8, 9, 11, 13 eta 16. helburuetan kontzentratuta.

ONNERA Groupen lantegi nagusia Oñatin dago, alegia, Debagoienan, Gipuzkoako lurralde historikoko eskualde batean, Bizkaia eta Araba probintziekin muga egiten. Fagor Taldeko lantegi nagusi guztiak ere Debagoiena eskualde bereko hainbat herritan daude.

MONDRAGON esperientzia kooperatiboan integratuta, ONNERA GROUP etorkizun hobe batekin konprometituta dago. Etorkizuna, non taldea osatzen duten markak zintotasunaren, konpromisoaren, ekimenaren eta talde lanaren sinonimo diren, bidea elkarrekin egiteko garai berri baterantz. Jarrera proaktiboa, etengabe modu hobek, eraginkoragoak eta jasangarriagoak bilatzeko, ONNERA Group nazioartean lider izango den taldea izan dadin.



FAGOR Taldea

Fagor Taldeko 8 kooperatibak Mondragon Korporazioko Industria negozioko kide dira. Honako hauek dira Fagor Taldeko kooperatibak:

- Fagor Arrasate
- Fagor Automotion
- Fagor Electrónica
- Fagor Industrial
- Fagor Ederlan
- Copreci
- Mondragon Assembly
- Galbaian

ONNERA GROUP -en planta matrizea

3.1.1 Gure produktuak eta zerbitzuak

(2-6, 416-1)

ONNERA Group marka sorta zabal baten batasuna da, eta hiru eremu espezializatutan jarduten du:

Kolektiboentzako sukaldaritza:

Gure egosketa, labe, ontzi garbigailu, garbitegi eta hotzeko produktu sorta zabalarekin, sukaldaritza profesionalen behar berritzaile eta zorrotzeneri erantzuten diegu. ONNERA Groupek marka hauek ditu negozio honetan: Fagor Professional, Efficold, Edenox eta Asber.

Garbitegia:

Garbitzeko, lehortzeko eta lisatzeko makinak, azken belaunaldiko modeloekin, negozio txikietarako nahiz establezimendu handiagoetarako diseinatuta, hala nola hoteletarako, ospitaleetarako eta abarretarako. ONNERA Groupek marka hauek ditu negozio honetan: Fagor Professional, Domus, Primer eta Danube.

Hotz komertziala:

Merkatuko gama handienetako bat dugu elikagaiak eta edariak hozteko, kontserbatzeko edo erakusteko diseinatutako hotz aparatuetan. Tamaina, aplikazio, prestazio eta akaberei dagokienez, gure fabrikazio lantegietan guztiz pertsonalizagarriak diren askotariko soluzioak garatzen ditugu. ONNERA Groupek marka hauek ditu negozio honetan: Fagor Professional, Efficold eta Asber.

3.2. Kultura korporatiboa

(2-23)

MONDRAGON esperientzia kooperatiboaren barruan gaude, eta gure enpresa honegatik ezaguna izatea nahi dugu:

- gure bezeroekin batera hazten gara, haiekin batera egiten dugu lan soluzio eraginkoragoak eduki ditzaten, behar duten lekuan,
- pertsona arduratsuek eta proiektu komun batean inplikaturakoek eratutako taldea gara,
- gizartearekin eta gizartearen etorkizunarekin konprometitzen gara, baita energetikoki efizienteak eta jasangarriak diren produktuen garapenarekin ere.

ONNERA Groupen balioak hauek dira:

ZINTZOTASUNA.

“Asmatzeko ziurtasuna”; ONNERA Groupen zintzo jokatzeko dugu, harreman irekiak eta gardenak ditugu jendearekin, bai taldea osatzen dugunok, bai bezeroekin zein aliatuekin, haiekin harreman iraunkorrek eduki nahi ditugulako eta elkarren onerako delako.

KONPROMISOA.

“Hitzaren balio”; ONNERA Groupen konprometitzen gara emaitzak lortzen saiatuz, eta lana ondo eginez eta emandako hitza betez eta betearaziz.

TALDE GLOBALA.

“Elkarrekin gehiago gara”; ONNERA Group talde globala gara, pertsona bakoitzaren ekarpenak entzun eta gehitzen ditugu, Talde ikuspegia partekatzen dugu eta interes partzialari barik guztion onurari lehentasuna ematen dioten erabakiak gure egiten ditugu.

EKIMENA.

“Lehen pausoaren indarra”; ONNERA Groupen ekimenez eta jarrera proaktiboz jarduten dugu, bezeroari irtenbideak arin emateko, egiteko modu hobek eta etengabe bilatzeko eta enpresa gero eta sendoagoa eraikitzeko.

3.3. Helburuak eta estrategiak

(2-24)

2022an zehar, ONNERA Group 2021-2024ko Plan Estrategikoan murgilduta egon da, ezarritako helburuak lortzeko lanean.

Taldeak 5 bloke nagusitan banatu du bere negozioa:

1. Food Service
2. Garbitegia
3. ONNERA Contract (zuzeneko salmenta)
4. Hotz komertziala
5. Asber eta Edenox

Negozio bakoitzak bere plan estrategikoa dauka garatuta, eta erronkak, helburuak eta horiek lortzeko ekintzak definitu dira. Hauek dira partekatzen diren erronka nagusiak:

- Negozioaren errentagarritasuna
- Produktuaren eta zerbitzuaren kalitatea
- Eraldaketa digitala
- Talentua erakartzea
- Jasangarritasuna

ONNERA Groupek jasangarritasuna ulertzen du, bere hiru zutabe nagusiak hartuz eta integratuz: ingurumena, gizartea eta gobernantza. Hiru zutabe horiek kontuan hartuta, jasangarritasuneko plan estrategiko bat egin da, eta etorkizuneko negozio plan estrategikoarekin integratuko da.

Uste dugu produktu berrikuntza dela enpresaren hazkunderako motor garrantzitsua eta, horregatik, gure produktuen birmoldaketa dugu helburutzat, punta-puntako produktuak eduki nahi ditugularik gure negozioetako bakoitzean eta merkaturatzen ditugun gametan.

Jasangarritasuneko gure plan estrategikoan zehaztutako helburuak hauek dira:

1. Gure industria jardueraren eta gure produktuen ingurumen aztarna (energia, ura, hondakinak kimikoak, materialak) murriztea, ekoizpenean, erabileran eta bizi amaieran
2. Klima aldaketak Onnera Groupen jardueretan dituen ondorioek dituzten arriskuak eta aukerak identifikatzea
3. Karbonoaren kudeaketa sistematizatzea, egungo eta etorkizuneko jarduerak koordinatzeko eta Onnera Group karbonoan neutroa izan dadin lortzeko
4. Lan baldintza duin, bidezko eta mesedegarriak sustatu eta bermatzea Onnera Group osatzen duten guztientzat, eta, horretarako, haien ongizatea ekarriko duten enplegu eta lanpostu egonkor eta kalitatezkoak sortzen direla bermatzea
5. Tokiko ingurunean eta gizartean aktiboki parte hartzea, lurraldean balioa sortzen laguntzea, gizarte ekintzako ekimen solidarioen babesaren eta lankidetzaren bidez
6. Lankidetzaren eta konfiantza harremanak sustatzea interes taldeekin
7. Kultura kooperatiboa sustatzea, non gardentasuna, zintotasuna, konfiantza eta epe luzearako begirada kooperatibaren oinarriaren parte diren
8. Gure bezeroen beharrak eta eskakizunak asetzen dituzten produktuak eta zerbitzuak eskaintzea
9. Berrikuntza aplikatua sustatzea, eraginkortasunari eta kalitateari dagokienez hobetzen jarraitzeko

3.4. Joerak eta arriskuak

(2-23)

Merkatu globaleko joera nagusiak identifikatu dira, funtsezko faktoreak izango baitira ostalaritzako eta garbitegi industrialeko ekipamenduaren negozioan:

Jasangarritasunari buruzko kontzientziak:

- Gure sektoreko bezero batzuk ONNERA Groupek erakunde jasangarri bat izateko egiten dituen ekintzei buruzko informazioa eskatzen hasi dira.
- Zuzeneko salmentako hainbat bezerok Ecovadis plataforman erregistratzeko eta ebaluatzeko eskatu digute.
- Gure produktuen argudio komertziala, batez ere garbitegiaren sektorean, makinaren prestazio nagusiak kontuan hartzeaz gain, prezioari dagokionez, makinaren energia eraginkortasunerantz eta makinaren amortizaziorantz bideratzen ari da urte batzuen buruan, energiaren eta uraren kontsumoaren aurrezkiak justifikatuta.

Klima aldaketa:

- Klima aldaketak eta ura, elektrizitatea eta erregaiak bezalako baliabideen urritasunak eragin dute jasangarritasuna funtsezko faktorea izatea enpresa guztietan eta, oro har, gizarlean.

Digitalizazioa:

- Garbitegiaren merkatua, batez ere, eta pixkanaka gure gainerako negozioetakoak, produktu konektagarriak eskatzen ari dira, urrutitik kontrolatu ahal izateko.
- Interes talde guztiekin lan egiteko eta harremanak izateko modu orokorra aldatuz joan da azken urteotan. Produktu eta zerbitzu konektagarriak eskaintzeko beharra areagotu da.

ONNERA Groupeko negozioetarako identifikatu ditugun arrisku nagusiak hauek dira gai ekonomikoek, sozialei eta ingurumenari lotutako alderdietan:

Osagai eta lehengai mota guztietan gertatzen ari den **kostuen igoerak** zuzenean eragiten dio gure produktuen kostuari. Azken bi urteetan izan ditugun hornidura arazoak konponduz joan dira osagai gehienei dagokienez, nahiz eta oraindik arrisku osagai batzuk geratzen diren, eta horiei aurre egiteko, aurreikuspen altuak eta osagai alternatiboak baliatzen dira.

Produktuari lotutako arriskuak. ONNERA Groupek egiten eta saltzen dituen produktu gehienak arauen eta erregulazioen mende daude, horiek ez betetzeak kalte pertsonal eta materialak eragin baititzake. ONNERA Groupek bere produktuen segurtasuna ziurtatzen du eta arrisku horiek murrizten ditu, produktu berrien garapena eta merkaturatzea horretarako ezarritako prozedura bati jarraituz, beharrezko laborategiko probak eginez eta produktu familia bakoitzari eragiten dioten araei jarraituz. Gainera, produktuetako asko kanpoko laborategien bidez ziurtatzen dira.

Ingurumen inpaktuei lotutako erregulazioak. Merkatuaren beraren eskakizunak eta erregulazio berriak gero eta zorrotzagoak izango dira, erakundeen eta haien produktuen ingurumen inpaktuak minimizatzeko. Gaur egun, ONNERA Groupeko hiru lantegik ISO 14001 ziurtagiria dute, eta elektrizitate, gas eta ur kontsumoak murriztea faktore kritikoa da produktu berriak merkaturatzen diren guztietan.

Zibersegurtasunari lotutako arriskuak. Eraso zibernetikoak maila globalean handitzen ari dira, eta maila horretan intrusio batek fabrikazio prozesuak eta IT sistema guztiak geldiarazi ditzake, eta eragin larria izan dezake finantza mailan. ONNERA Groupek zibersegurtasun protokolo batzuk ditu ezarrita, eta IT sailetik etengabe zaintzen dira.

03. ONNERA taldea: berrikuntzaren eta lehiakortasunaren alde

3.5. GJHekiko konpromisoak

Gure kooperatiba duela 60 urte sortu zen, ingurunearen hainbat beharri erantzuteko. **Gure gizartearen erronkak gure erronkak dira, eta horregatik lan egiten dugu gainerako kooperatibekin, eragile sozialekin eta administrazio publikoekin batera, XXI. mendeak ekarri dizkigun erronkei heltzeko.**

Jasangarritasuna gure kooperatibaren ardatz nagusietakoa izanik, gure negozioa presente dagoen komunitateetan eragitea da gure lehentasunetako bat, bai gure langileen partaidetzaren bitartez, bai erakunde moduan parte hartuz.

MONDRAGONek konpromisoa du GJHekin, eta ekarpenak egiten ditu Garapen Jasangarrirako Helburu bakoitzean.

Jasangarritasuna ardatz estrategikoa da MONDRAGONentzat. Honako ezaugarri hauek nabarmentzen ditu: enplegu duina eta kalitatezkoa, laneko segurtasuna eta osasuna, hezkuntza, kontsumo arduratsua, berrikuntza (trantsizio digital eta berderako palanka gisa) eta azpiegitura eta ekimen sozial eta komunitarioetarako laguntza. Azken batean, gizartearen beharrei erantzutea MONDRAGONen Eraldaketa Sozialaren printzipioaren parte da.



3.6. Konfiantza eta hurbiltasuna interes taldeekin

(2-23)

ONNERA Groupen identifikatutako interes taldeak hauek dira:

- Langileak
- Bezeroak
- Hornitzaileak
- Administrazioa
- Kontratak
- Fagor Taldea / Mondragon Korporazioa
- Prebentzio zerbitzu mankomunatuak
- Hezkuntza zentroak
- Zentro teknologikoak
- Ingurunea (bizilagunak eta udalerrria)

Materialtasun azterketan parte hartzen duten interes taldeak identifikatzeko eta hautatzeko oinarria Zuzendaritza Kontseiluaren eta lehendakariaren arteko parte hartzezko bilera batean lortzen da.

Identifikatutako interes talde guztietatik, gure ustez erakundean eragin handiena dutenak aukeratu ziren:

- Langileak
- Banaketa bidezko salmentaren bezeroak
- Zuzeneko salmentaren bezeroak
- Hornitzaileak
- Gizarte eragileak (ikastetxeak eta zentro teknologikoak barne)
- Administrazio publikoa

Interes taldeak antolatzeke ikuspegia:

- **Langileek enpresaren kudeaketan parte hartzea:** etengabeko partaidetza; Batzar Nagusian aukeratutako bazkideak Kontseilu Errektorearen eta Kontseilu Sozialaren parte aktibo dira. Kontseilu Errektoreko kideak, lehendakariarekin batera, erakundearen alderdi exekutiboko kideak dira, lau urtez. Kontseilu Sozialeko kideek hileroko deskargua egiten diete beren ordezkatuari Kontseilu Sozialesan landutako gai garrantzitsuekin, eta langileek beren ekarpenak egin ditzakete. Gainera, lau urtean behin Erakunde Kulturaren Inkesta egiten da, eta, horren bidez, langileek erakundearen eta bere kudeaketaren hainbat eremuri buruz duten sentimendua jasotzen da.
- **Bezeroak:** gure sare komertzialak harreman etengabea eta hurbila du bezeroekin, eta sektoreko hainbat azokatara joaten gara gure oraingo bezeroekin harremanak sendotzeko eta negozioa aukera berriak sortzeko. Gainera, gure erakundearekiko

eta gure produktu eta zerbitzuekiko duten gogobetetasuna modu objektiboan neurtzeko, bezeroen gogobetetzeari buruzko inkesta egiten da bi urtean behin. Hurrengo inkesta 2023an egingo da.

- **Hornitzaileak eta azpikontratak:** erosketak eta pilaketak sailak etengabeko harreman dauka horiekin. Materialtasun azterketan parte hartzeko, hornitzaile esanguratsuenei bidali zaizkien inkestak egin dira.
- **Ikastetxeak eta zentro teknologikoak:** unibertsitateekin eta zentro teknologikoekin parte hartzen dugu, gure beharren arabera hainbat proiektutan lan egiteko. Unibertsitateekin ere aritzen gara elkarlanean. Hala, ikasleen karrera amaierako proiektuetan ere laguntzen dugu, eta, bestalde, talentua erakartzeko bide gisa erabiltzen dugu. Materialtasun azterketan ere inkesten bidez parte hartu dute.
- **Fagor Taldea eta Mondragon Korporazioa:** etengabeko harremana dago, eta aldizkako bilera batzuk zehaztuta dituzten hainbat batzorderen bidez gauzatzen da.
- **Administrazioa:** bi aldeetako batek premiaren bat duenean.

Erakundeak batez ere bi interes talderen kezkak edo asegabetasunak jasotzen ditu: langileak eta bezeroak:

- Langileen asegabetasunak Kontseilu Sozialesan kudeatzen saiatzen gara, eta, hurrengo bileran, aurreko bileran jaso ziren zalantza edo asegabetasunei erantzuten zaie.
- Bezeroei dagokienez, une bateko argazkia eman diezagukeen bezeroen gogobetetzeari buruzko inkestaz gain, erreklamazioak biltzeko sistema bat dugu gure intraneten, eta gure teknikariek produktu, dokumentazio edo zerbitzuko erreklamazioak grabatzen dituzte. Erreklamazio horiek baliozkotze prozesu batetik igarotzen dira (nahikoa informazio badagoen edo datu gehiago eskatu behar diren egiaztatzeke) eta, baliozkotu ondoren, konpontzeko dagokion taldera iristen dira. Hilean behin eta negozio unitate bakoitzeko, erreklamazio eta ekintza guztien jarraipena egiten da. Ekintzak egin ondoren, erreklamazioak ixten dira eta erantzun bat bidaltzen da, egindako ekintzei buruzko informazio guztiarekin.
- Langileen dagokienez, erreklamazioak gai sozialei lotuta egoten dira batez ere, eta bezeroen aldetik, batez ere produktuen inguruko erreklamazioak izaten dira (emandako produktuan edo zerbitzuan atzemandako akats puntualak).

3.7. Materialtasun azterketa

(2-12, 2-29, 3-2)

2022an materialtasun bikoitzaren azterketa egin dugu, 2020an egin genuen inpaktuen materialtasunaren azterketatik abiatuta.

2020an, ONNERA Groupen materialtasuna landu genuen, barneko eta kanpoko ikuspegi batetik, interes taldeak kontuan hartuta. Joera globalak eta sektorialak identifikatu ziren, jasagarritasunaren eremuak aztertuta.


Arrisku global gakoak aztertu genituen, 2022an WorldEconomicForumek argitaratutako txostenetik abiatuta. Txosten horrek arrisku potentzialak identifikatzen ditu epe laburrerako (0-2 urte), ertainerako (2-5 urte) eta epe luzerako (5-10 urte), eta baita horien garrantzia ere.

Kooperatibarentzat funtsezkoak diren arrisku sektorialak aztertu genituen, lanean diharduen herrialde do kokalekuak kontuan hartuta. Risk Horizon plataformak enpresarentzat garrantzi gutxikoak, garrantzitsuak eta oso garrantzitsuak diren arriskuen ikuspegia izaten laguntzen digu, ASG alderdiei dagokienez (ingurumenekoak, gizartekoak eta gobernanzakoak).

Azkenik, barneko bilera bat egin zen Zuzendaritza Kontseiluarekin eta Lehendakartzarekin, eta, han, gure erakundearentzat garrantzitsuak diren gai horiek duten garrantzia aztertu zen. Haztapena soilik finantza materialtasunaren ikuspegitik egin zen, inpaktuaren materialtasunaren ponderazioa aurreko saioan egin baitzen.

Hasierako materialtasun bikoitzeko matrizea honako hau izan zen:

Materialitate matrizea



3.8. Berrikuntza eta garapena

(3-3)

ONNERA Groupek fakturazioaren %1,67 bideratuko du I+G+Bra.

Berrikuntza hainbat arlotan lantzen dugu:

- **Produktua:** hainbat iturritatik hautematen dira aukerak, hala nola bezeroetatik, zentro teknologikoetatik eta ikastetxeetatik, eta, ondoren, negozio unitate bakoitzeko Produktu-Merkatu Batzordean aztertzen dira. Balioztatutako aukerek produktu berriak abiarazteko prozesu osoa igarotzen dute, produktuak merkatura ateratzen diren arte.
- **Zerbitzuak:** Eraldaketa Digital, Elektronika eta Produktu Sailak zerbitzua digitalizatzeko eta makinaren konektibitateko proiektuetan bideratzen ari dira beren ahaleginak.
- **Prozesuak:** prozesuetako berrikuntza produktuen kalitatea eta produktibitatea hobetzera bideratzen dugu, puntako teknologia eskuratuz eta fabrikazio lantegiak digitalizatuz.

2022an iKORE labe berriak merkaturatu dira, aurreko labeen gamarekin alderatuta %16ko energia hobekuntzarekin. Labe horiek, gainera, konektagarritasuna dute Advance gaman, eta, horren bidez, azken erabiltzaileek eta bezeroek errezetak kargatu, parametroak konfiguratu eta akatsen jarraipena egin dezakete.

Prozesu eta zerbitzuei dagokienez, berrikuntzarako baldintzak gure produktuetan kalitate hobea lortzeko beharrezko ondorioz edo gure fabrikazio prozesuen efizientzia hobetzeko aukeraren ondorioz etorri ohi dira. **ONNERA Group harremanetan dago txapa eraldaketaren eta soldadura teknologien sektoreetako puntako hornitzaileekin.** Hainbat hornitzaileekin lankidetzan aritu gara ONNERA Grouperako garapen bereziak egin ahal izateko, gure fabrikazio prozesuen eta produktuen kalitatea eta efizientzia hobetzeko.

Baliozkotzeko ondorengo bilera batean, Produktuaren bizi zikloa, Negozioen etika eta osotasuna eta Berrikuntza ere gai material gisa sartzea erabaki zen.

Prozesua amaitu eta gaiak garrantzi mailaren arabera sailkatu ondoren, materialtzat hartu dira bai finantza materialtasunean, bai gizarte eta ingurumen inpaktuan garrantzi handia duten gai guztiak, eta baita bi ikuspegietan garrantzi handia, ertaina eta txikia duten gaiak ere.

Hau da ONNERA GROUPEN GAI MATERIALEN hautaketa

Arlo ekonomikoa eta Gobernantza


- Finantza sendotasuna
- Etika eta zintotasuna negozioetan

Ingurumen arloa

- Hondakinen kudeaketa
- Energia eta klima-aldaketa
- Produktuaren bizi-zikloa

Arlo soziala

- Laneko segurtasuna eta osasuna
- Bezeroen gogobetetzea
- Berrikuntza



Gobernantza: lurraldean errotuta

(3-3, 2-10, 2-11, 2-12, 2-13, 2-16, 2-29)

**GUREA DEMOKRAZIA ENPRESAREN
ESPARRURA ZABALDU ZUEN
ESPERIENTZIA BAT DA, BOTO BAT
BAZKIDE BAT PRINTZIOAREN ARABERA
DIHARDUENA.**

Gure bazkide langileek jabetzan, emaitzen banaketan eta kudeaketan parte hartzen dute.

Garapen Jasangarrirako Helburuekin konprometitutako gobernantza eredu kooperatibo bat garatzen ari gara, eta gure organo nagusia Batzar Nagusia da, non gure etorkizuna zehazten duten erabaki garrantzitsu guztiak hartzen ditugun.

4.1. Gobernu egitura

Fagor Industrial, ONNERA Groupen lantegi nagusia, MONDRAGON Korporazioko sozietate kooperatibo bat da, eta, horrenbestez, gobernu organo gorena Kontseilu Errektorea da, zeinak gehienetan Taldeko Zuzendaritza Batzordeak markatutako zuzentzarauak jarraitu eta onartzen dituen.

Batzar nagusia:

Kooperatibaren organo gorena Batzar Nagusia da, non bazkide guztiak parte hartzen duten eta beren iritzia eman dezaketen. Batzar Nagusia bazkideek osatzen duten organo soziala da eta bere eskumenekoak diren gaiez eztabaidatu eta horien inguruko erabakiak hartzen ditu. Batzar Nagusiak aukeratutako edozein bazkide Kontseilu Errektoreko kide izatera irits daiteke.

Kontseilu errektorea:

Batzar Nagusiak aukeratzen du Kontseilu Errektorea, kooperatibaren gobernu eta ordezkari organoa. Kontseilu Errektoreak lehendakari bat du, hori ere Batzar Nagusian aukeratzen dena, eta Kontseiluko kideak 4 urtean behin berritzen dira Batzar Nagusian.

Kontseilu Errektorea kide anitzeko organoa da, eta berari dagokio eskusiboki Kooperatibaren kudeaketa eta ordezkaritza; gainera, legean, estatutu sozialetan edo beste organo sozialetan berariaz erreserbatuta ez dauden egiteko guztiak ere egiten ditu. Bazkideek, Kontseilu Errektoreko kideak aukeratzeko botoa ematen dutenean, bozkatzen duten pertsonaren gaitasunak, ibilbidea edo esperientzia hartzen dituzte kontuan.

Kontseilu Errektoreko kideak hauek dira: lehendakaria, lehendakariordea (lehendakariaren lanak bere gain hartuko ditu hura ez badago), idazkaria eta bost kide. Bakoitzaren botoak balio bera du, bozketa batean berdinketa dagoenean izan ezik, kasu horretan lehendakariaren botoak bikoitza balioa baitu.

Kontseilu Errektorea gure gobernantza eredia birdefinitzeko proiektu batean ari da lanean, eta, horretarako, hainbat prestakuntza saio egin ditu Mondragon Korporazioko Gestio Sozialeko Sailaren eskutik. Lantzen ari garen eredu horren bidez, kooperatibako organoen (Kontseilu Errektorea, Zuzendaritza Kontseilua eta Kontseilu Soziala) arteko funtzioak eta harremanak berrikusten eta definitzen ari dira. Helburua da organoen arteko konfiantzazko eta erantzunkidetasunezko harremanak garatzea.

Zuzendaritza kontseilua:

Zuzendaritza Kontseiluak zuzendari taldearen eginkizunak koordinatzen ditu eta Kontseilu Errektorea aholkatzen du. Zuzendaritza Kontseiluak gerente bat eta hainbat zuzendaritza kide ditu. Gerentea Kontseilu Errektoreak aukeratzen du, eta,

lehendakariarekin batera, proiektu kooperatiboaren buru izan behar du, enpresaren bikaintasunean eta Printzipio Kooperatiboetan oinarrituta.

Kontseilu Errektorearen eta Zuzendaritza Kontseiluaren jarduna urtero ebaluatzen da Batzar Nagusian. Batzar horretan, aurreko urteko kudeaketa onartu ala ez bozkatzen da, eta urterako aurkeztutako Gestio Plana onartzen den ere bozkatzen da.

Kontseilu soziala:

Kontseilu Sozialak bazkideen kolektiboa ordezkatzeko du kooperatibaren barne instantzien aurrean. Bazkideen partaidetza eta informazio organoa da. Kide kopurua kooperatibako bazkide kopuruaren arabera ezartzen da. Kontseilu Soziala, definizioz, lan komunitateak Kooperatibaren administrazioan parte hartzeko duen organo iraunkorra da. Bazkide langileak ordezkatzeko ditu eta horien nahien bozeramailea da.

Bere oinarritzko egitekoak informazioa, aholkularitza eta kontsulta egitea dira eta, gainera, negoziazio eta kontrol sozialeko funtzioak ere betetzen ditu.

Langileen kezka eta zalantza Kontseilu Errektoreari edo Zuzendaritza Kontseiluari helarazteko ohiko bidea kontseilutxoak dira (Kontseilu Sozialaren ordezkari bakoitzak bere ordezkari hileroko ematen dien informazio hitzaldia), eta gero dagokion ordezkari sozialak Kontseilu Sozialari helarazten dio.

Nolanahi ere, kasu kritikoetarako, Kontseilu Errektoreko kideak eta lehendakaria bera prest daude edozein bazkideri arreta emateko.

Kontseilu Sozialaren Osoko Bilkuran 16 kide parte hartzen dute: kide horiek dira kolektibo jakin bateko pertsonak ordezkatzeko dituztenak, bazkide izan edo langile kontratatu izan. Ordezkatzeko duten kolektiboaren eskaerak, iradokizunak eta kezka jasotzen dituzte eta hilean behin biltzen dira gai horiei buruz hitz egiteko. Horren ostean, kontseilutxoak antolatzen dituzte eta euren ordezkari guztiak biltzen dira, Kontseilu Sozialaren Osoko Bilkuran hartutako erantzunak, erabakiak eta konpromisoak azaltzeko.

Kontseilu Sozialak badu batzorde iraunkor bat, bost bazkidez osatua, bere egitekoa izanik Kontseilu Sozialaren lana koordinatzea, gaiak eta informazioa proposatuz, bilduz eta transmitituz.

Hori da elkarrizketa sozialari dagokionean dugun jarduteko era Oñatiko enpresa nagusian kokatzen den Kooperatibaren barruan, eta, era horretan, Gipuzkoako bazkide langileei ez zaie aplikatzen Gipuzkoako Metaleko Hitzarmena, hori

kontratutako langileei aplikatzen bazaie ere. Gainera ONNERA Group Espainiako lurraldean hainbat probintzian dago kokatuta, lantegien bidez edo ordezkari komertzialen bitartez, eta, hori dela eta, Gipuzkoakoaz gain, hauek dira gure sektorean aplikatzen diren hitzarmen kolektiboak: Madril, Sevilla, Valentzia, Tenerife, Las Palmas, Huesca, Bartzelona eta Kordoba.

Beste batzorde batzuk:


Zaintza Batzordeak kontabilitateko alderdiak eta kontuan hartzea eskatzen duten beste alderdi batzuk behar bezala betetzen direla zaintzen du. Bere helburu nagusia da urteko kontuak berrikustea eta horiei buruzko eta irabaziak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruzko derrigorrezko txostena ematea.

Ekonomia, ingurumen eta gizarte gai buruzko erabakiak hartzeko ardura duten batzordeak hauek dira: Kontseilu Errektorea eta Zuzendaritza Kontseilua. Kontseilu Errektoreak, gai ekonomikoetarako, finantza zuzendaritzari eskuordetzen dio aginpidea, eta, ingurumen gaietarako, zuzendaritza industrialari. Gizarte gai dagokienez, Kontseilu Errektoreak berak eraman ohi du erantzukizuna, betiere pertsonen zuzendaritza sailean oinarrituta eta Zuzendaritza Kontseiluaren iritziarekin ere gai garrantzitsuetarako edo eragina duten gaietarako.

Goi exekutiboak eta Kontseilu Errektorea dira erakundearen helburuak garatzen, onartzen eta jarraipena egiten dutenak. Halaber, erakundearen misioa eta balioak, estrategiak, politikak eta gai ekonomiko, sozialei eta ingurumenari lotutako helburuak aldarrikatzen dituztenak dira. Horretarako, Kontseilu Errektoreko kide guztiek prestakuntza espezifikoa jasotzen dute gai ekonomiko eta sozialetan, organoko kide izatera sartzen direnean.

Gobernantza kooperatiboaren ikuspegi sistemikoa

Rolen eta harremanen arteko dinamikan oinarritua



4.2. Eredu kooperatiboa

Eredu kooperatiboaren helburua da, gure lan komunitatea inspiratzen duten oinarritzko printzipioen definiziotik eta adierazpenetik, gure kideen nahi humano eta sozialak asetzeari, horretarako enpresa egitura errentagarri eta sendoa bat lortuz, eta lankidetzaren pertsonaren zerbitzura jartzea, munduarekiko eta gure ingurunearekiko elkartasunez.

- Lana diogunean, nahi humanoak pixkanaka asetzeko eta giza aurrerapena lortzeko baliabide gisa ulertzen dugun, norberaren enpresa errealitatearekiko konpromiso indibidual eta kolektiboa bultzatuko duen elkartasun zorrotz eta arduratsu batetik.
- Bazkide langileak dira produkzio baliabideen jabe, eta eskubide sozialak pertsonaren lanari lotuta daude, ez kapitalaren jabetza izateari.
- Kooperatibako kide guztiek parte hartzen dute ordezkari eta gobernu organoen hautaketan eta sozietatearen xedearen definizioan, erantzunkidetasuna ahalbidetu eta sustatuko duen erredu demokratiko baten alde eginez, bai sozietatearen araubidean bai enpresaren kudeaketan.

Heziketarekin eta garapen kooperatiboarekin batera, printzipio kooperatibo horiek portaerarako jarraibideak ematen dizkiete gure erakundeko pertsonari, Kooperatibaren balioak praktikan jartzeko.
Proiektu partekatutako bat eraikitzen duten pertsonak.

Kooperatibaren gobernu organoak eta horiek betetzen dituzten funtzioak benetan demokratikoak izateko, bazkideak haien hautaketan eta haietan parte hartuz inplikatzeko bultzatzen da, bai eta parte hartze eta lan subiranotasun sistema baten berezko komunikazio sarean eta erabakiak hartzeko sarean aktiboki parte hartzea ere.

4.3. "Compliance"-a eta etika enpresariala

(2-26, 205-1)

2022an, ONNERA Groupek lanean jarraitu du Compliance sistema bat garatzen, lehenik lantegi nagusian aplikatzeko eta, martxan jarri ondoren, gainerako filialetara zabaltzeko. Jokabide kodea garatu da, eta Betetze Batzordeko kideak izendatu dira, jokabide kode horretan zehaztu dugun guztia betetzen dela zaintzeko. Azken hiru hilabeteetan hasi ziren Betetze Batzordearen lehen bilerak egiten, eta 2023an Jokabide Kodea erakunde osora hedatzeko modua sistematizatuko da.

Fagor Industrialeko edozein langilek eman dezake kezka etikoei buruzko informazioa, bere ordezkari sozialari jakinaraziz, beharrezkoa izanez gero Kontseilu Sozialari, Kontseilu Errektoreari edo Lehendakariari berari helaraz diezaioten. Salaketan kanala 2021aren amaieran ireki zen. Helbide elektronikoa honen bidez egin daiteke: compliance@onneragroup.com baina orain arte ez da salaketarik jaso.

Gure jokabide kodeak argi adierazten du berariaz debekatuta daudela ustelkeria, eroskeria edo estortsio ekintzak, baita legez kanpoko edozein abantaila eskaintzea edo, zuzenean edo zeharka, agintza egitea, eta influentzia trafikoa ere. Eta gauza bera kapital zuriketari buruz ere, adieraziz une oro beteko ditugula kapital zuriketari buruzko lege nazional zein nazioartekoak.

Salaketan kanala erabili behar da, halaber, ustelkeriarekin, eroskeriarekin eta kapital zuriketarekin lotutako gaiei buruzko balizko salaketak bideratzeko ere. 2022an ere ez da horren inguruko salaketarik jaso.

4.4.

Giza eskubideak

(3-3, 2-23, 2-24, 2-25, 2-26, 414-2, 412-1)

Kooperatibaren forma juridikoa, eta horixe da gurea, Giza Baliabideen Adierazpen Unibertsaleko printzipioen garapen anbiziotsua da; zehazki, gizaki guztiak duintasunean eta eskubideetan berdinak direla adierazten denean.

ONNERA Groupek, printzipioz, baztertu egiten ditu lan behartuak, haurren lana eta edozein diskriminazio mota egitea, eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen funtsezko hitzarmenak betetzen ditu.

Kooperatiban lan egiten duten pertsonak eskubide eta betebeharrak berberak dituzten bazkideak dira, euren ezagutzak edo hierarkian duten kokapena gorabehera. Guztiak parte hartzen dute enpresaren jardueraren arriskueta eta onuretan.

Arlo horretan detektatzen dugun eragin negatibo bakarra gure hornidura katearekin lotuta egongo litzateke, Giza Eskubideak urratzeko arriskua izan dezaketen herrialdeetako hornitzaileengan. Gure Erosketa Saila hornitzaile horien lantegien egoera berrikustez arduratzen da, eta balizko arriskuak antzemanaz gero, automatikoki baztertuta geratuko litzateke enpresa horiekin lankidetzan aritzea. Ebaluazio horiek batzuetan bisiten bidez egiten dira, eta beste batzuetan informazioa eskatzen zaie, gero ahal den neurrian kontrastatzeko. Aurreikusten dugunez, epe ertainean, hornitzaileei gure jokabide kodearekin bat egiteko eskatuko diegu, bertan berariaz zehazten baita honako hauekin dugun konpromisoa:


- Lan behartuak eta nekagarriak debekatzea
- Gizakien trafikoa debekatzea eta atzerriko herritarrak babestea
- Haurren lana debekatzea eta adingabeak babestea

Barne mailan, Betetze Batzorde bat jarri dugu abian, erakundearen barruan gure jokabide kodea betetzen dela bermatzeko, eta bertan biltzen dira aipatu berri ditugun Giza Eskubideekin lotutako alderdiak. Betetze Batzordeko bost kideek 3 orduko prestakuntza jaso dute.

Esanguratsuen izan daitekeen arriskua laneko jazarpena izango litzateke, baina gure kasuan ez da gorabeherarik izan, gertatuz gero pertsonarengan eragin garrantzitsua izango lukeen arren. "PRO53 Gatazken Barne Konponbidea" prozedura dugu definituta, eta bere helburua da behar diren jarduerak jartzea, laneko jazarpen portaerengatik egindako salaketei edo erreklamazioei bide emateko. Salatzailleak bitartekari bat izan dezake lan hori betetzeko definituta dauden profil posibleen artean. Lehenik eta behin, gatazka adiskidetze bilera baten bidez konpontzen saiatuko gara beti, baina bilera arrakastatsua izango ez balitz, ebazpen formal batera joko litzateke.

ONNERA Groupek, orain arte, ez du salaketarik jaso Giza Eskubideen urraketa kasuengatik.

Gure lantegi nagusia den kooperatiba erakunde gisa, elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiborako eskubidea sustatu eta errespetatzen ditugu, Kontseilu Soziala izeneko gobernu organoaren bidez (4.1 atalean azaltzen dira haren funtzioak), eta kooperatiba ez diren lantegiek ordezkari sindikalen bidez egiten dituzte.



Bezeroak:
produktu
arduratsuak eta
kalitatekoak

(3-3, 2-6)

ONNERA GROUPEK BERE PRODUKTUAK
ETA ZERBITZUAK BI BEZERO MOTAREN
BIDEZ ESKAINTZEN DITU:

• **BANAKETA bidezko salmenta:** sare komertzial eta zerbitzu sare propioa duten bezero banatzaileak, salmenta egiteko eta azken erabiltzaileei salmenta ondoko arreta integrala emateko.

• **ZUZENEKO salmenta:** ONNERA Contract liderra da ostalaritza eta kolektibitateen sukalde eta garbitegi profesionaletarako soluzioetan. Proiektuaren fase guztiez arduratzeko gai da, diseinu eta inženiaritzatik logistika, instalazio, abian jartze eta mantentze lanetaraino. Zuzeneko salmentatik sektore hauetara iristen da: hotelak, cateringak, zerbitzu soziosanitarioak (ospitaleak, egoitzak, klinikak), ostalaritza, jatetxeak eta supermerkatuak. Erabiltzaile horiengana zuzenean edo hainbat kanalen bidez iritsi gaitzke: eraikitzaileak, inbertsio funtsak, preskriptoreak eta abar.

5.1. Produktuen kalitatea eta segurtasuna

(416-2, 417-1)

ONNERA Groupen fabrikatutako produktuen segurtasuna, hain justu, munduko hainbat herrialdetan saldu ahal izateko lortutako egiaztagiriek bermatzen da.

Gure laborategiak egiaztapenak egiteko akreditatuta daude, produktuak erregulatzen dituzten arauen arabera, produktuak zein merkatutara zuzentzen diren. Herrialdeen ziurtagiri eskakizun gero eta handiagoei erantzuteko, kanpoko hainbat laborategirekin ere lan egiten da.

ONNERA Groupek ziurtagiri bakoitzak etiketen eta dokumentazioaren inguruan eskatzen diren baldintzak betetzen ditu, eta gaur egun ez dago horri buruzko ezadostasunik.

Produktu merkaturatze guztien kalitatea bermatzen da, produktu berriak merkaturatzeko prozedurari jarraituz, non merkaturatu ahal izateko egin beharreko laborategiko proben, aurre serieen eta merkaturako behaketa epeen mugarri guztiak ezartzen baitira.

5.2. Bezeroen gogobetetzea

ONNERA Groupen sare komertzialak ahalegin handia egiten du bezeroekin duen harremana serioa, estua eta denboran iraunkorra izan dadin, gure negozioarako funtsezko alderdia baita.

Denboran sendotutako harremanak dira, saldu aurreko eta saldu ondoko zerbitzu onetan oinarrituta, aldizkako bisitak eginez eta prestakuntza tekniko eta komertzial etengabeak emanez. ONNERA Groupek, halaber, gure markek merkatuan duten posizioa sendotzeko eta indartzeko apustua egiten du, eta, horretarako, mundu osoko food service eta garbitegi sektoreetako azoketara joaten da.

Bezeroen gogobetetzea gure ikusmiran etengabe dagoen faktorea da. Gogobetetzea bi bideren bidez neurtzen eta kudeatzen da:

• Gure **sare komertziala eta tekniko** etengabe dago harremanetan gure bezeroekin, eta gure produktuekiko eta zerbitzuekiko duten sentimendua jasotzen du, bisiten bidez, telefonoz deituta edo mezu elektronikoak bidalita. Komertzialek nahiz teknikariek gure bezeroen kezak eta kezak helaraz diezazkiokete erakundeari, erreklamazioak kudeatzeko sistemaren bidez edo produktu edo zerbitzu berrien beharrak Merkatu-Produktuaren Batzordeari helaraziz, hor koordinatzen baitira produktuaren merkaturatze guztiak.

• **Bezeroen gogobetetzeari buruzko inkesta**; gure bezeroen zati handi bati 20 faktore desberdini buruz galdetzen zaie, hala nola gure produktuen fidagarritasunari, merkataritza tratuari edo saldu aurreko eta saldu ondoko zerbitzuei buruz. Txosten bat egiten da erantzun guztien ondorioekin eta ekintza plana prestatzen da.

2022aren amaieran hasi zen bezeroen gogobetetze inkesta egiteko prozesua, eta 2023ko lehen hiruhilekoan amaitzea espero da.

Produktu, zerbitzu eta dokumentazioaren erreklamazioak barruan kudeatzen dira, ONNERA Groupen intraneteko erreklamazioak kudeatzeko sistemaren bidez. Erreklamazio guztiak jasotzen eta sailkatzen dira, beren txostenekin eta beharrezko gainerako dokumentuekin. Erreklamazioak banaka aztertzen dira eta jarraipena egiten zaie negozio unitate bakoitzak egiten dituen hileroko erreklamazio bileretan. Bilera horietan erreklamazio bakoitzerako prebentzio ekintzak planteatzen dira, eta erreklamazioa itxi ondoren, ekintzak ere itxi egiten dira, eta emandako konponbidearen berri ematen da.

Kalitatearen inguruan egindako kudeaketa jasotako erreklamazioen ehunekoaren bilakaera positiboan islatzen da, salmentei dagokienez. Taula honetan, saldutako unitateei dagokienez jasotako erreklamazioen kopurua jasotzen da:

	% Salmentei buruzko erreklamazioen
2020	0,55%
2021	0,44%
2022	0,40%

Erreklamazio guztiei eta horietako bakoitzerako planteatzen diren ekintza zuzentzaile eta prebentibo guztiei egiten zaien jarraipenaren ondorioz, gure produktua etengabe hobetzen ari da, eta horren isla da erreklamazioen %-aren jaitsiera urteko urtera.

5.3. Eraldaketa digitala eta zibersegurtasuna

(418-1)

ONNERA Groupen lehentasunetako bat, hain zuzen, gure bezero guztiei kalitateko zerbitzu integrala eskaini ahal izatea da, eta horretarako, funtsezkoa da azken urteetan lantzen ari garen eraldaketa digitalerako estrategia.

2022an gure bezeroen 2.000 garbigailu baino gehiago konektatu dira hodeira, gure IoT plataformaren bidez. Konexio horri esker, bezeroek beren ekipoak urrutitik kontrolatu, abisuak eta jakinarazpenak jaso eta programak sortu ahal izango dituzte, beste aukera askoren artean. Mugarri hori funtsezkoa da negozioaren hazkunderako, batez ere garbitegiaren arloan.

2022aren amaieratik aurrera eta 2023 osoan zehar ahal diren labe guztiak konektatuko dira zerbitzu hori bera labeetan eskaintzeko 2024rako.

Zibersegurtasuna da ONNERA Groupeko IT saila etengabe lantzen ari den beste funtsezko alderdi bat, eta protokoloak eguneratzen ari da gure sistema informatikoan intrusioak ahalik eta gehien saihesteko.


Ez dugu bezeroen pribatutasuna urratzeari edo datuak galtzeari buruzko erreklamaziorik jaso, ez 2022an, ez aurreko urteetan.


5.4. Komunikazioa eta harremana bezeroekin

ONNERA Groupeko marka bakoitzak bere komunikazio plana egiten du interes taldeentzat. Komunikazio plan horien barruan dago webguneak mantentzea eta monitorizatzea, eta, batez ere, kanpainak eta komunikazioak egitea LinkedIn, Facebook eta Instagram sare sozialen bidez, besteak beste.

Marka bakoitzak bere webgunea eta bere profilak ditu sare sozialetan, eta horietatik hainbat mezu mota igortzen zaizkie interes taldeei. Hemen marka desberdinek egindako argitalpenen hainbat adibide:

Produktuen katalogoekin eta produktuen zati teknikoarekin lotura handiena duten komunikazioak newsletterren bidez egiten dira, eta barneko edo kanpoko langileei bidaltzen zaizkie posta elektronikoz, transmititu nahi den mezu motaren arabera.





Enpresa
hornitzaileak:
jasangarritasuna
hornidura
katean

(2-6, 204-1, 308-2, 408-1, 414-1, 414-2)

ONNERA GROUPEKO HORNIDURA KATEA ALDERDI HAUEK OSATZEN DUTE:

1. Lehengaien eta osagaien hornidura: eskariaren araberako plangintza batean oinarrituta, osagaien eta lehengaien erosketak planifikatzen dira.
2. Lehengaiak eta osagaiak gure biltegiatara garraiatzea: materialen garraioa materialak jasotzean ordaintzen da, eta, gehienetan, gure pilaketa sailek kudeatzen dute.
3. Txapazko piezen fabrikazioa: gure makinetako txapazko osagaiak lantegi bakoitzean fabrikatzen dira, erositako lehengaietatik abiatuta.
4. Txapazko osagaiak eta piezak biltegiatzea: osagai komertzial guztiak zein barne fabrikaziokoak biltegi zentral batean biltegitzen dira, eta horrek hornitzen ditu muntaketa lerroak, fabrikazio programa batean oinarrituta.
5. Aparatuen fabrikazioa: instalazio bakoitzean muntatzen ditugun aparatuen mekanizazio eta muntaketa prozesu osoa da (sukaldeak, labeak, garbigailuak, ontzi garbigailuak, hotz komertziala, etab.)
6. Produktu bukatua biltegitratzea: fabrikatutako tresna guztiak produktu bukatuaren biltegitara bidaltzen dira, eta hor gordetzen dira gure bezeroei eskaerak bidaltzeko ordua iritsi arte.
7. Azken produktua bezeroengana garraiatzea: bezero motaren eta helmugako herrialdearen arabera, garraioa modu desberdinean kudeatzen da.

Hiru hornitzaile mota daude gure erakundeetan:

- **Lehengaien eta osagaien hornitzaileak:** gure produktuak egiteko behar diren materialez hornitzen dituzte lantegiak.
- **Garraio eta zerbitzu hornitzaileak:** fabrikaziorako behar diren materialak ekartzeaz eta gure bezeroei amaitutako produktuak entregatzeaz arduratzen diren garraiolariak.
- **Merkaturatutako produktuaren hornitzaileak:** gure katalogoetan saltzen ditugun produktuen zati txiki bat beste fabrikatzaile batzuei erosten dizkiegu.

Jarraian, gure hornidura katean identifikatzen ditugun gizarte eta ingurumen inpaktu negatiboak aipatuko ditugu:

- Giza eskubideak urratzea, eskubide horiek urratzeko nolabaiteko arriskua duten herrialdeetan. Gaur egungo gure hornitzaileen artean horrelako inpakturik identifikatu ez badugu ere, ONNERA Group lanean ari da gure jokabide kodea lehenik barne mailan eta gero hornitzaileetara zabaltzeko. Hornitzaileei eskatuko zaie gure jokabide koderatxikitzeke, non argi eta garbi adierazten dugun aukera berdintasunarekin eta diskriminaziorik ezarekin dugun konpromisoa, bai eta lan behartuak debekatzearekin eta gizakien trafikoa eta haurren lana debekatzearekin duguna ere.
- Lehengaiak eta osagaiak garraiatzeko erabilitako energiak sortutako berotegi efektuko gasen emisioak. Hornitzaile asko bertakoak izan daitezten saiatzen gara, baina negozioaren errentagarritasuna eta arlo horretan materialen kostuek duten garrantzia ere kontuan hartu behar ditugu. Tokiko hornitzaileei erostea ezinezkoa den kasuetan, ahalik eta gehien biltzen dira materialak portuetan, garraioaren eragina ahalik eta txikiena izan dadin.

6.1. Hornidura katearen erantzukizuna

ONNERA Groupek, bere Compliance sistemaren barruan, aplikazio globaleko jokabide kode bat garatu du, jasagarritasunaren, ekonomiaren/gobernantzaren, gizartearen eta ingurumenaren arlo guztiak hartuko dituena.

Orain arte, erakundeko langile guztiak atxiki dira jokabide kode horretara, baina hurrengo urratsa izango da gure hornitzaile guztietara zabaltzea, hornitzaileen atariaren bidez.

2022an, hobekuntza nabaritu da hornitzaileek hornidura lanak betetzean, baina osagai elektronikoko batzuk nahiko ezegonkorrak dira oraindik. Azken urte hauetan bizitakoaren ondorioz, gure fabrikazioen epe luzeagoko aurreikuspenak egin behar izan ditugu osagai guztien hornidura bermatu ahal izateko, horixe baita gure ekoizpen prozesuari eta bezeroarentzako zerbitzuari begira daukagun arriskurik handiena.

Hornitzaileen azpikontratazioa arriskutsua da erakundearentzat segurtasunari dagokionez, batez ere fabrikazio lantegietan mantentze eta instalazio lanak egiteko, baita zuzeneko salmentako eragiketetan ere, instalazio eta prest jartzeko lanak egiteko. Horregatik, fabrikazio lantegietan kontratistak kontrolatzeko prozedura bat dute; horretan, erakundearen eta hirugarrenen arteko jarduerak koordinatzeko eta kudeatzeko metodologia zehaztu da, langileen nahiz Fagor Industrialentzat lan egiten duten edo zerbitzuak ematen dizkieten hirugarrenen segurtasuna eta osasuna zaintzeko. Gainera, gai hauek kontrolatzeko sistematika ere deskribatzen da:

- Kontratisten homologazioa, Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren ikuspegitik.
- Kontratistek ingurumenari lotuta sortzen dituzten alderdiak, Fagor Industrialeko instalazioetan egiten dituzten lanak direla eta.
- Kontratistak legez baimenduak izatea euren lana egiteko.
- Bisitariak, kamioi gidariak eta bestelakoek jarduteko era.

ONNERA Groupen ustez, bere langileen laneko segurtasuna eta osasuna oso alderdi garrantzitsua da, bai langileen interes taldearentzat bai hornitzaileen taldearentzat, eta, horregatik, lantegi nagusiak ISO 45001 nazioarteko ziurtagiria du bere kudeaketa sistematan integratuta, ISO 9001 eta ISO 14001 arauekin batera.

Osagai berri edo aldatutako guztiak homologazio prozesu batetik igarotzen dira, diseinutik definitutako zehaztapenak betetzen dituztela bermatzeko. Laginen homologazioa egiten da eta lehen lotearen ikuskapena ere egiten da.

Hornitzaileen homologazioa urtero egiten da, eta kalitatearen atalean %97tik beherako puntuazioak dituzten kasu guztiak aztertzen dira, baita hornidura arazoak eman dituztenak ere. Azterketa hori egin ondoren, erabakitzen da ea hornitzaile horietako zeintzuei bidaliko zaien ebaluazio txostena, eta ekintza zuzentzaileak eskatzen zaizkie. Hauek dira hornitzaileen ebaluazioan kontuan hartzen diren irizpideak:

- Egindako hasierako ebaluazioaren balorazioa
- Kalitatea
- Zerbitzua

Etorkizunean, ingurumen eta gizarte irizpideak sartzea planteatzen ari gara.

Negozioaren ezaugarriak kontuan hartuta, ez da beharrezkotzat ikusten hornitzaileen auditoriak egitea, ez bada horietakoren batekin gorabehera esanguratsuak gertatu direla.

Erakundeak haurren lana abolitzen eta lan behartua ezabatzen laguntzea helburu duten neurriak dagokienez, erosketa saila da hornitzaile berriei bisita egiten diena eta faktore hori kontuan hartzen du, hornitzailea haurren lanera jotzen ari delako zantzuren bat aurkituz gero, automatikoki gure hornitzaileen zorrofik kano gera dadin.

Azken urtean 305 hornitzaile ebaluatu dira, eta %90,5ek %97 baino puntuazio altuagoa lortu dute. Hornitzaileen gainerako %9,5ak kasuz kasu aztertu dira, ebaluazio txostena horietako zeini bidali behar zaion identifikatzeko.

6.2. Tokiko hornitzaileak

ONNERA Groupen erosketaren bolumen handiena duten material taldeak hauek dira:

Material taldeak	Erosketen %-a guztizkoarekiko
Txapazko lehengaia	% 34
Hainbat familia (plastikozko piezak, hotzeko multzoak, hornidurak, itsasgarriak, etab.)	% 27
Osagai elektriko eta elektronikoak	% 24
Pieza/Multzo metalikoak	% 15

Datu horiek erakusten dute garrantzitsua dela lehengaien erosketaren kudeaketa ona egitea material multzo horren horniduraren eta prezioen une kritiko honetan, mundu osoan.

2022an, erosketen %62,5 tokikoak izan dira, eta datua pixka bat jaitsi da aurreko urteko %64arekin alderatuta. Tokiko erosketatzat jotzen da fabrikazio lantegi bakoitzak osagaiak bere herrialdeko hornitzaileei erosten dizkionean.



Giza taldea:
pertsonak
zaintzea

(2-6, 204-1, 308-2, 408-1, 414-1, 414-2)

ONNERA GROUPEN PERTSONAK GARA ERDIGUNEA.

Pertsonak gara etorkizuna eraikitzen dugunak, partekatutako proiektuarekiko erantzukidetasunez, belaunaldi berriei guk jaso dugun baino kooperatiba hobea uzteko konpromisoarekin.

Pertsonak beren onena eman dezaten, **enpresa kultura aurreratua eraikitzeko lanean ari gara**, hau da, talde lana sustatzen duen, aniztasuna kudeatzen dakien, pertsonen osasuna zaintzen duen eta lana eta familia bateragarri egitea ahalbidetzen duen enpresa kultura eraikitzeko.

7.1. Elkartasuna oinarri

Onnera Groupen bilakaera positiboak eta emaitzek markatutako egoera batean, antolatu eta behar bezala adostutako barruko nahiz kooperatiben arteko mekanismoek pertsonen eremua kudeatzeko aukera ematen digute, nortasun zeinuak dituen kudeaketa kooperatiboaren ereduaren bidez, zeinak kide izatearen sentimendua sortu, lankidetzaz erraztu eta sinergiak optimizatzen laguntzen baitu.

ONNERA Group kide den eredu kooperatiboa bere pertsonen ongizatea, motibazioa eta epe luzerako beharrak asetzera bilatzen duen eredu da. Bazkide langileok zati berdinetan parte hartzen dugu kooperatibaren kapitalean eta aktiboki laguntzen dugu kooperatibaren kudeaketan.

Pertsonen eta erakundearen arteko ekitatean eta elkartasunean sinesten dugu, eta, horregatik, gure kooperatiban ordainsarien eskala 1etik 6ra mugatuta dago, eta elkarri laguntzen diogu etorkizun ilusionagarri baterantz lankidetzan aurrera egin dezagun.



7.1.1 ENPLEGUA

(102-8)

ONNERA Groupen 2.320 lagunekoko plantilla du 2022ko abenduaren 31n, eta horietatik 1.742 gizonak dira eta 578 emakumeak. 2021. urtearekin alderatuta, orduan 2.369 pertsona baitzeuden, esan dezakegu plantilla egonkor mantendu dela. Gizonen guztizko kopurua 52 murriztu egin da, eta emakumeen guztizko kopurua 3 igo da.

Horren ondorioz, ehuneko globalean adierazleak mantendu egin dira; izan ere, 2021ean langileen %75,7 gizonak ziren, eta %24,3 emakumeak, eta 2022an, berriz, %75,1 gizonak eta %24,9 emakumeak.

7.1.2 KONTRATU MODALITATEAK

Kontratazioaren modalitateari dagokionez, 2022an, %92,2k kontratu mugagabea izan dute, %7,8k aldi baterako kontratua.

2021ean ONNERA Groupen %78k kontratu mugagabe baten bidezko lotura zuten, eta gainerako %22k aldi baterako kontratuarena.

Joan den urtean, negozioaren hazkunde testuinguruak ahalbidetuta –2021ean, 277M €-ko fakturazioa izan zen, eta, 2022an, 392M €-koa–, erakundearen kontratazio mugagabeak finkatzen jarraitu ahal izan zen. Alderdi horretan egindako aurrerapena oso esanguratsua izan da, eta, beraz, azken urte honetan egonkortasuna eman zaio plantillari, eta horrek indartu egiten ditu pertsonen balioan konfiantza duen erakunde baten oinarriak.

	2022	2021
Kontratu mugagabea	2.139	1.848
Aldi baterako kontratua	181	521
* Lanaldi partzialeko kontratua	35	42

*Lanaldi partzialeko kontratuak mugagabeen eta aldi baterakoekin barruan sartzen dira.

Kontratu motaren bilakaera generoaren arabera (batez besteko kopuru osoa):

	Kontratu mugagabea		Aldi baterako kontratua		Lanaldi partzialeko kontratua	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
2022	1.611,89	518,7	317,34	131	14	22
2021	1.360,90	395,20	377,40	126,90	25,50	16,00

Durante el periodo del 2022, el 98,6% de los empleados ha trabajado a jornada completa, mientras que el 1,4% restante ha trabajado a jornada parcial. En 2021 los datos fueron muy similares con un 98,2% de los empleados a jornada completa y el 1,8% restante a jornada parcial:

Kontratu mota	Lanaldi osoa		Lanaldi partziala	
	2022	2021	2022	2021
Iraunkorra	2.107	1.808	32	40
Aldi baterakoa	178	519	3	2
Guztira	2.285	2.327	36	42

Kaleratzen bilakaerari dagokionez, nahiz eta egia den kontratu mugagabeen kopurua nabarmen igo dela, kaleratzeak ere igo egin dira aurreko urtearekin alderatuta. Kontuan izan behar da Onnera Groupeko pertsona kopuruan azken murrizketa bat egon dela. Horrela, 2021ean kaleratzen kopurua 71koa baino ez zen izan, eta, 2022an, kopuru hori handitu egin da: 132 kaleratze, guztira.

Kaleratzeagatiko kalte ordainei dagokienez, nolana ere, herrialde bakoitzean dagokion legeriak ezartzen duenaren arabera ezartzen dira.

07. Giza taldea: pertsonak zaintzea

7.2. Elkartasuna ordainsarietan

(2-19, 2-20, 405-2)

SOLDATEN RATIOA SEXUAREN ARABERA

Soldatei dagokionez, 2022an igoera handia izan dela ikusi da, bai maila globalean, bai kategoria profesional bakoitzean, taula honetan islatzen denaren arabera:

Kategoriak	Gizonak		Emakumeak	
	2022 (€)	2021 (€)	2022 (€)	2021 (€)
Zuzendariak	80.147	72.498	60.334	48.249
Erdi mailako arduradunak	40.932	35.603	28.864	22.869
Teknikariak	28.132	27.021	26.862	26.607
Langileak	19.518	18.570	13.583	13.347

(*) Datuak ONNERA Groupeko langileen batez besteko soldatak hartuz kalkulatu dira. (Urtean 3 hilabete baino gutxiago egon diren pertsonak kendu dira kalkulutik, batezbestekoa ez desitxuratzeko).

(**) Zuzendarien soldatetan ONNERA Groupeko Zuzendaritza Batzordea ez ezik, taldeko Zuzendaritza Batzordeko kide ez diren lehen mailako negozio lerroko beste zuzendari batzuk ere sartzen dira.

SOLDATEN RATIOA ADINAREN ARABERA

Adin orokorreko taldearen arabera batez besteko ordainsariaren 2022ko eta 2021eko bilakaerari dagokionez, adin talde guztietan izan da igoera, eta igoera hori esanguratsuagoa da adin tartea zenbat eta handiagoa izan. Taula honetan agertzen dira datuak:

Adin taldeak	Batez besteko ordainsaria adinaren arabera	
	2022 (€)	2021 (€)
20-35 urte	14.911	14.021
36-45 urte	24.602	23.492
46-55 urte	29.414	27.742
55 urtetik gora	32.808	29.291

(*) Datuak ONNERA Groupeko langileen batez besteko soldatak hartuz kalkulatu dira. (Urtean 3 hilabete baino gutxiago egon diren pertsonak kendu dira kalkulutik, batezbestekoa ez desitxuratzeko).

SOLDATA RATIOA KATEGORIA PROFESIONALEN ARABERA

Batez besteko ordainsariaren datuetan jartzen badugu arreta, kategoria profesionaleri erreparatuta, ONNERA Groupen 2020tik 2021era izandako bilakaera honelakoa izan da:

Kategoriak	Batez besteko lansaria sailkapen profesionalaren arabera	
	2022 (€)	2021 (€)
Zuzendariak	78.005	69.307,9
Erdi mailako arduradunak	37.985	32.270,9
Teknikariak	27.689	26.880,5
Langileak	18.174	17.495,3

(*) Datuak ONNERA Groupeko langileen batez besteko soldatak hartuz kalkulatu dira. (Urtean 3 hilabete baino gutxiago egon diren pertsonak kendu dira kalkulutik, batezbestekoa ez desitxuratzeko).

SOLDATA ARRAKALA HERRIALDEEN ARABERA

Hona hemen 2022ko eta 2021eko ekitaldien arteko soldata arrakalaren konparazioa:

Soldata arrakala, herrialdeen arabera (2021-2022)	Espainia		Frantzia		Italia		Mexiko		Polonia		AEB		Beste batzuk (Erresuma Batua, Turkia, Txina, Txekia, Portugal, Kolonbia, Jamaika eta Dominikar Err.)	
	2022 (€)	2021 (€)	2022 (€)	2021 (€)	2022 (€)	2021 (€)	2022 (€)	2021 (€)	2022 (€)	2021 (€)	2022 (€)	2021 (€)	2022 (€)	2021 (€)
Emakumeen batez besteko ordainsaria (a)	28.128	25.790	37.076	35.223	34.250	36.500	7.877	5.940	11.497	12.115	41.793	38.648	20.578	18.536
Gizonen batez besteko ordainsaria (b)	29.970	27.588	51.794	46.945	46.333	46.836	9.957	6.551	15.191	15.823	75.374	72.355	27.911	23.013
Kalkulua: a/ b	0,94	0,93	0,71	0,75	0,74	0,78	0,79	0,91	0,76	0,78	0,55	0,53	0,74	0,80

(*) ONNERA Groupeko herrialde bakoitzean dituen erakunde juridikoetako langileen batez besteko soldata kalkulatu da.

07. Giza taldea: pertsonak zaintzea

7.2. Elkartasuna ordainsarietan

(2-19, 2-20, 405-2)

SOLDATA RATIOA SEXUAREN ETA KATEGORIEN ARABERA, HERRIALDEKA

Oinarrizko soldataren ratioa eta emakumeen eta gizonen ordainsariak hauek dira lan kategoria bakoitzerako:

Herrialdeak	Kategoriak	Gizonak		Emakumeak	
		2022 (€)	2021 (€)	2022 (€)	2021 (€)
Espainia	Zuzendariak	73.005	72.176	57.251	55.282
	Erdi mailako arduradunak	43.494	42.507	41.808	36.023
	Teknikariak	37.418	35.165	30.370	27.172
	Langileak	25.248	23.402	24.131	23.122
Frantzia	Zuzendariak	152.892	124.513	-	-
	Erdi mailako arduradunak	69.246	90.635	53.367	-
	Teknikariak	38.064	48.287	31.078	36.016
	Langileak	30.025	26.516	27.898	22.531
Italia	Zuzendariak	58.500	80.000	-	-
	Erdi mailako arduradunak	45.000	47.000	70.000	70.000
	Teknikariak	35.500	29.925	22.333	25.333
	Langileak	-	-	-	-
Mexiko	Zuzendariak	98.295	64.664	69.586	62.928
	Erdi mailako arduradunak	21.902	14.301	17.594	12.275
	Teknikariak	11.119	8.031	13.272	9.560
	Langileak	5.975	3.471	4.943	3.078
Polonia	Zuzendariak	26.785	47.381	-	35.301
	Erdi mailako arduradunak	27.332	24.062	28.854	19.904
	Teknikariak	15.565	15.345	12.055	11.520
	Langileak	13.268	10.331	10.331	11.320
AEB	Zuzendariak	177.616	134.591	-	-
	Erdi mailako arduradunak	83.173	77.204	54.208	34.762
	Teknikariak	32.266	38.677	40.241	40.203
	Langileak	-	-	-	-
Beste batzuk (Erresuma Batua, Turkia, Txina, Txekia, Portugal, Kolonia, Jamaika eta Dominikar Err.)	Zuzendariak	-	-	-	-
	Erdi mailako arduradunak	42.845	36.979	30.580	26.447
	Teknikariak	18.171	14.973	18.473	15.493
	Langileak	-	-	-	-

(*) Datuak ONNERA Groupeko langileen batez besteko soldatak hartuz kalkulatu dira. (Urtean 3 hilabete baino gutxiago egon diren pertsonak kendu dira kalkulutik, batezbestekoa ez desitxuratzeko).

Kontseilu Errektorea

Kontseilarietarako dagokienez, aipatu behar da kooperatibako Kontseilu Errektorea osatzen duten kideek ez dutela lansaririk jasotzen egiteko horretan jarduteagatik, izan ere, bakarrik lehendakaria dago bere lanpostutik liberatuta, eta Kontseilu Errektoreko gainerako kideek partekatu egiten dituzte errektoreen egitekoak langile gisa duten rolaekin. Horrela, ez dago loturirik pertsona horiek jasotzen duten lansariaren eta kooperatibarentzat egiten duten administratzaile lanaren artean.

Guztira 9 dira kontseilariak, erakundeko arlo desberdinak eta erantzukizun maila desberdinak ordezkatzuz. Horiek guztiak kooperatibako bazkide dira eta Euskadin bizi dira.

Kontseilarien prestakuntza maila

- Enpresa Zientzietako lizentziatura
- OHO
- Ingeniaritza Teknikoa Elektronikan
- LH2 Mekanika
- Ingeniaritza Teknikoa Elektronikan
- LH2 Automobilgintza
- LH2 Mekanika
- LH2 Industrialak Mantentze Lanak
- Enpresa Zientzietako diplomatura

Zuzendaritza Batzardea

Onnera Groupeko Zuzendaritza Batzardearen batez besteko soldata 118.809 eurokoa da 2022an, eta 99.917 eurokoa zen 2021ean. Ez da generoaren arabera banatzen konfidentzialtasuna mantentzeko, emakume bakarra baitago Zuzendaritza Batzardean.

Ez dago onura espezifikorik gobernu organoentzat edo goi exekutiboentzat betetzen duten rolagatik. Indize batera eramandako ordainsaria dute, kooperatiban hartzen duten erantzukizuna islatzen duena, baina gainerako gaietan kooperatibako gainerako bazkideen eta langileen eskubide eta betebeharrak berberak dituzte, inolako pribilegio gehigarririk gabe. Hala, kooperatibako lanpostu guztiek indize jakin bat dute, eta hori soldata batera eramaten da, goi exekutiboak barne.

Ordainsari aldakorraren sistemari esker, kooperatibako langileek ordainsariaren %7 lor dezakete kontzeptu horregatik, urteko soldata gordinaren gainean kalkulaturik.

Administrazio Kontseilua

Administrazio kontseiluaren batez besteko soldata 38.749 eurokoa da 2022an, eta 37.124 eurokoa zen 2021ean.

Ez da generoaren arabera banatzen, konfidentzialtasuna gordetzeko, emakume bakarra baitago Administrazio Kontseiluan.

Kooperatibaren gobernu organo gorenak ez du berezko ordainsaririk egiten duen lanagatik eta, aitzitik, betetzen duten lanpostuari dagokion ordainsaria duten pertsonak dira. 2022an, Administrazio Kontseiluaren batez besteko ordainsariak igotzea txiki bat izan du 2021arekin alderatuta.

7.3. Lanaren antolaketa

Lana antolatzeko, Onnera Groupen kudeaketa deszentralizatua egiten du. Herrialde bakoitza eta lantegi bakoitza, dituen berezitasun kulturalak, sustraitutako ohiturak eta lantegien beharrak eta gaitasunak kontuan hartuta, autonomoa da funtzionatzeko garaian.

Hala eta guztiz ere, Taldean irizpide orokor bat dago, langileen konfiantzan eta konpromisoan oinarritzen dena.

Kooperatiban baditugu esparru honi buruz gure barne araudiak markatzen dizkigun jarraibide orokorrak, eta, era berean, badugu laneko denboran nola funtzionatu behar dugun esaten digun barne araudi bat, orain dela gutxikoa, irizpide hauetan oinarrituta:

- a) Irizpide argiak eta bidezkoak: egoera berdinei erantzun berdina.
- b) Produktibitatearen kultura sustatzea, eta ez aurrez aurreko kultura, aparteko orduetara jo beharra ahalik eta gehien murrizteko.
- c) Burokrazia saihestea eta minimizatzea: baimenak, eskaerak, kontrola, etab.
- d) Enpresaren malgutasun beharrei erantzungo diena.
- e) Lan denboraren kudeaketan konfiantza sustatzea.

7.4. Harreman sozialak

(2-30, 407-1)

Onnera Groupen lantegi nagusiak, erakunde kooperatiboa den aldetik, erakunde kooperatibo bati atxikitako partaidetza sozialeko organoak ditu: Kontseilu Soziala, Kontseilu Errektorea eta Batzarra. Eta erabaki organo horiei lotuta, hainbat foro antolatzen dira, non bazkideek aktiboki parte hartzeko aukera duten: kontseilutxoak, bazkideentzako informazio hitzaldiak eta kolaboratzaileen bilerak, batez ere.

Gainera, 2022aren amaieran antolaketa kulturari buruzko inkesta eta arrisku psikosozialei buruzko inkesta egin ditugu, kooperatibako pertsonak esparru horietan dituzten iritziak jasotzeko eta gogobetetzea, konpromisoa eta ongizatea hobetzeko ekintza planak ezartzeko.

Taldearen herrialdeetako hitzarmen kolektiboek edo pareko araudiek laneko segurtasunari eta osasunari lotutako alderdiak jasotzen dituzte. Hitzarmen kolektiboaren bitartez babestutako enplegatuen datua ematen da:

Hitzarmen kolektiboak babestutako langileen ehunekoa Espainian	2022	2021
Hitzarmen kolektiboak babestutako langileak guztira (A)	1.885	1.559
Langileak guztira (B)	2.320	2.369
Kalkulua A/ B	% 81,2	% 65,8

7.5. Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatuz

(2-23, 405-1)

Kooperatibaren estatutu sozialek argi ezartzen dute ez dagoela diskriminaziorako lekurik inolako arrazoiengatik:

Ideia politikoak, sindikalak edo erlijioari buruzkoak eta ezta eskatzailearen arraza, hizkuntza, sexua edo egoera zibila ere ez dira onarpena ukatzeko arrazoi izango, xede sozialarekin bateraezinek direnean izan ezik.

Eta bazkide langileen oinarritzko berdintasuna aldarrikatzen da, bi printzipiotan zehaztuta:

Atxikimendu librea: esperientzia kooperatiboa irekita dago gizon eta emakume guztientzat, oinarritzko printzipioak onartzen badituzte eta egon litezkeen lanpostuetarako egokitasun profesionala egiaztatzen badute.

Antolaketa demokratikoa: esperientzia kooperatiboa bazkide langileen oinarritzko berdintasuna aldarrikatzen du izateko, edukitzeko eta ezagutzeko dituzten eskubideei dagokienez, eta horrek berarekin dakar enpresaren antolaketa demokratikoa onartzea.

Berdintasunaren esparruan lanean jarraitu nahi dugu eta baldintza egokiak jarri nahi ditugu berdintasuna erakunde maila guztietan bermatzeko.

Horretarako, politikak eta ekintza planak ditugu bai kooperatiba mailan, bai ONNERA Groupen, aukera berdintasuna zaintzeko eta diskriminazio ororen aurka jarduteko. Espainian kokatutako erakunde juridiko guztietan: Fagor Industrialek, Onnera Laundry Bartzelonan, Onnera Contracten eta Efficolden berdintasun plan bat zehaztuta daukagu. Plan horren ondorioz, 2022an jarduera ildo berritzaileak ezarri ditugu, erakunde osoa sentsibilizatzea helburu dutenak. Gainera, laneko jazarpen egoeren kasuetan jarduteko protokoloak ditugu, eta Efficold eta Fagor Industrialek, gainera, sexuan oinarritutako jazarpenari buruzko protokolo espezifiko bat dugu.

Gobernu organoetako pertsonen ehunekoa, generoaren arabera:

Gobernu organoak	Gizonak (%)	Emakumeak (%)
Plantillako gainerakoak	66,67%	11,11%
Erdi mailako arduradunak	22,22%	0,00%

2022an, 2021eko aldirian bezala, ez da diskriminazio kasurik jakinarazi eta ez da egon.

7.5.1 Aniztasunaren kudeaketa

ONNERA Groupen konprometituta gaude irisgarritasunaren hobekuntzarekin, eta kontzientzia handia dago gure lantegietan egiten diren obrek gure eraikin eta instalazioetarako irisgarritasuna errazteko eta hobetzeko.

Une honetan, ONNERA Groupen lantegi nagusian, garbitegiko produkzio lantegi berriaren obrak hastear gaude, garbigailuen ekoizpena bertan hartzeko eta handitzeko. Planta modernoa eta berritzailea izango da. Aurki hasiko dira eraikitzen, eta erreferentea izango da Taldean, digitalizazioari, berrikuntzari eta irisgarritasunari dagokienez.

Taldearen enpresa guztietan kontzientziatuta gaude gizartearekin eta desgaitasuna duten pertsonen integrazioarekin.

ONNERA Group osoaren gaineko kopurua hau da:

	Desgaitasuna duten langileak (talde osoa)	
	2022	2021
Desgaitasuna duten langileak guztira (a)	34	43
Langileak guztira (b)	2.320	2.369
Kalkulua: a/b	% 1,47	% 1,81

(*) Talde mailan desgaitasuna duten enplegatuen 2021eko datua zuzendu egin da 2021eko EINFarekin alderatuta, 36 izatetik 43 izatera igaro baita.

7.6. Kontziliazio erantzunkidea

Onnera Groupen lan baldintzek, esaterako, ordutegi malguak, lana eta bizitza pertsonala bateratzen laguntzen dute.

Gure kooperatibaren barne araudiak era generikoan jasotzen ditu norberaren bizitza eta lana uztartzen laguntzera bideratutako neurriak. Horiek xehetasunez garatzen dira baimenei, eszedentziei, lanaldi murrizketei, ordutegi bereziei eta abarri dagozkien barne araudi eta prozeduretan eta, horrela, gure bazkideek aukera dute familia kontziliazioko beharrak betetzeko.

Kontratudunei Gipuzkoako hitzarmen siderometalurgikoan jasotako arauak aplikatzen zaizkie, Oñatiko lantegian lan egiten badute, eta dagokien hitzarmena herrialdearen gainerakoan. Espainiatik kanpo, fabrika dugun herrialdeetan, hitzarmen bereziak dituzte Mexikon eta Frantzian, Polonian ez bezala, non ez duten inolako erregulazio espezifikorik.

ONNERA Groupek langileen eskura jartzen dituen neurrien adibideetako batzuk, enpleguaren kalitatea hobetzera eta familia eta lana bateragarri egiten laguntzera bideratuta daudenak, lantegi nagusiko jantoki zerbitzua eta Onnera Mexikoko fabrikara joateko garraio antolatua dira.

Deskonexio digitalari dagokionez, ONNERA Groupen badakigu oso garrantzitsua dela ezarritako lan denboratik kanpo langileen atsedean, baimen eta oporraldiarekiko errespetua bermatzea. Ez dugu berme hori zaintzen duen inolako araudirik, baina oso kontzientziatuta gaude gure pertsonen konpromisoa, ilusioa, eraginkortasuna eta gure enpresa proiektuarekiko motibazioa lortzeko "deskonexio" horrek duen garrantziaz.



7.7. Pertsonen garapena bultzatzen dugu

(403-5, 404-1, 404-2)

Prestakuntzaren ardatz orokor nagusiak laneko segurtasunaren eta osasunaren esparrura bideratzen dira, gai hori funtsezkoa baita gure langileak zaintzeko eta babesteko. Adibide moduan, Oñatiko lantegian, sektorearen hitzarmen kolektiboan prebentzioaren arloan jasotako betekizunei jarraituz, prestakuntza plan bat garatzen ari da, gure erakundearen hauteman diren ofizio guztietarako prestakuntza orokorrak eta espezifikoak hedatzeko, kolektibo osoari zuzenduta, izan kontratudunak zein kooperatibako bazkideak, eta erakundearen maila guztietan, zuzendarietatik tailerreko langileetara.

ONNERA Groupen sentsibilitate handia dago gure langileak prestatu eta garatzeko. Urtero, prestakuntza edo formazio planak definitu eta garatzen dira, pertsonak hazi daitezen helburuarekin eta hazkunde horrek eragina izan dezan negozioaren hazkundera.

Funtsezko beste prestakuntza proiektu bat gure bazkideen profesionalizaziorako prestakuntzan oinarritu da. Aretxabaleta Lanbide Eskolarekin lankidetzan, ad hoc prestakuntza bat diseinatu da, barne mailan prestakuntza hori goi mailako industria ziklo batekin parekatzeko aukera ematen duena. Kooperatibaren helburua da gero eta prestakuntza handiagoko bazkideak izatea, eta, beraz, bazkide sartu ahal izateko, prestakuntzaren listoa goi mailako zikloan jarri da. Erabaki horrekin batera, gure langileei eta bazkideei prestakuntza ematea erabaki da, beren prestakuntza eguneratzeko eta erakundearen barruan profesionalki aurrera egiten jarraitzeko aukerak emateko.

Gainera, arlo sozialeko prestakuntzak antolatzen jarraitu da, alde batetik, Administrazio Kontseiluko kide berriei zuzenduta, beren lana profesionalizatzeko eta erakundearen betetzen duten rol garrantzitsurako prestatzeko, eta baita bazkide berriei ere, gure langileek gure proiektuarekiko konfiantza, konpromisoa eta inplikazioa izan dezaten sustatzeko.

Oinarritzko beste ardatz bat garapenerako prestakuntzak dira, gure arduradunei zuzendutakoak, horiek baitira erakundeko pertsonak kudeatu, motibatu eta ilusionatzeaz arduratzen diren liderrak, eta baita kolektiboari zuzendutakoak ere, esaterako, "garapenerako elkarrizketen" proiektua. Proiektu horren xedea da arduraduna eta bere taldea hurbiltzea, hausnarketa bateratua egitea kezka, indargune, hobetzeko arlo, motibazio eta espektatibei buruz, arduraduna laguntzailearengana hurbiltzeko, konpartitzeko gune bat sortzeko eta bien garapena errazteko.

ONNERA Groupen prestakuntzara bideratutako inbertsioak 2022an ere eboluzionatzen jarraitzen du, hainbat arlo teknikotan asmo handiko proiektuak gauzatuta, hala nola Eraldaketa

Digitalean, non prestakuntzan inbertsio handia egin behar izan den arlo horren erronkei bermeekin aurre egin ahal izateko.

Prestakuntzako orduen kopurua taula honetan ikus daiteke:

Prestakuntza orduen kopurua	2022	2021
Langileak	10.941	16.858
Teknikariak	5.803	3.884
Erdi mailako arduradunak	3.550	3.057
Zuzendariak	1.370	563

7.8. Pertsonak zaintzen ditugu

(3-3, 2-25, 403-2, 403-3, 403-9, 403-10)

Laneko Segurtasun eta Osasunari dagokionez, Fagor Industrial S.Coop.ek Laneko Segurtasun eta Osasunaren ISO 45001 ziurtagiria dauka. Ziurtagiri hori urtero auditatzen du AENOREk. Gainerako fabrikazio lantegiek lan arriskuen prebentziorako zerbitzu propioa edo azpikontratatu dute.

Gainera, 2017ko maiatzean LAPeko arauzko auditoria ere egin zen, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduari buruzko 39/1997 EDan, urtarrilaren 17koan, xedatutakoaren arabera, eta hurrengo 2023an egingo da.

Aipatu ziurtagiriei eusteak erakusten du kooperatibak konpromisoa duela plantillaren prebentzio eta ongizate mailarik handienak lortzeko.

Fagor Industrial S.Coop.ek, Osartenen Laneko Segurtasuna, Osasuna eta Ongizatea Garatzeko GARATUZ ereduari jarraituz, konpromisoa mantentzen du pertsonen bizitza osasungarria sustatzen duten jarduerak antolatzeko.

Hauek dira aitortu diren gaixotasun profesionaleko kasuak:

Gaixotasun profesionalen kopurua	2022	2021
Emakumeak	2	2
Gizonak	2	1
Guztira	4	3

2020an gure mutua gaixotasun profesionalak aitortzen hasi zen, lehen gaixotasun arrunt gisa hartzen baitziren. Horren ondorioz, eboluzioa handitzen joan da 2021ean, lehenago kategoria horretan sartzen ez ziren lesioak orain halakotzat sartzen baitira. Eta, lesio gehiago aztertzen direnez, logikoa da gaixotasun profesionalen kopuruak gora egitea.

Laneko baja eragin duten istripuen kopuruari dagokionez, berriz, hurrengo laukian azken 2 urteetako bilakaera jasotzen da. Istripuek gora egin dute, eta arlo horretan sentsibilizazioa areagotu egin da, adierazle hori murrizten jarraitzeko asmoz.

Baja eragin duten istripuen kopurua	2022	2021
Emakumeak	13	18
Gizonak	74	62
Guztira	87	80

Lan istripuagatiko lesio motak ohikoenak dira kontusioak, ebakiak eta azaleko zauriak. Lesio arriskua duten laneko arriskuak zehazteko, enpresako medikuak eta erizainak eta LAPeko zerbitzuak lanpostuak aztertzen dituzte. Ikuskapenak ere egiten dira.

Gainera, langileek aukera dute identifikatzen dituzten arriskuak salatzeke, beren hurreneko arduradunaren edo prebentzio ordezkararen bidez. Prebentzio Zerbitzuak istripu eta gertakari guztien erregistroa darama.

LAPeko zerbitzuak jarraipena egiten die lanpostuaren analisietatik, langileen iradokizunetatik eta ikuskapenetatik eratorritako segurtasun ekintzei.

Lan istripuek eragindako lesioen tasak lan egindako 1.000.000 orduko kalkulatu dira.

Istripuen larritasun indizea (**)										
	Taldea		Polonia		Frantzia		Mexiko		Espainia	
	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021
Emakumeak	0,18	0,79	0	0	0	0,44	0,40	2,01	0,05	0,10
Hombres	0,49	0,68	0,19	0,9	0,64	3,56	0,36	1,32	0,61	0,35
Guztira	0,41	0,71	0,19	0,9	0,64	2,73	0,76	1,55	0,49	0,30

Istripuen maiztasun indizea (*)										
	Taldea		Polonia		Frantzia		Mexiko		Espainia	
	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021
Emakumeak	11,83	16,61	0	0	0	38,89	3,42	12,67	18,31	22,34
Hombres	23,11	18,91	17,74	6,53	30,65	14,47	0	12,02	34,57	24,14
Guztira	20,23	18,34	17,74	5,24	30,65	21,09	3,42	12,24	31,24	23,75

(*) Maiztasun indizearen kalkulua:


Lanaldian zehar baja eragin duten istripuen kopurua sexuaren arabera, lan egindako milioi ordu bakoitzeko:

(Istripu kopurua sexuaren arabera/Lan egindako ordu kopurua sexuaren arabera) * 1.000.000

(**) Larritasun indizearen kalkulua:

Lan istripuen ondorioz galdutako lanegun kopurua sexuaren arabera, lan egindako 1.000 orduko:

(Galdutako lanegun kopurua sexuaren arabera/Lan egindako ordu kopurua sexuaren arabera) * 1.000

The background of the entire page is a close-up photograph of tree bark. The bark is dark brown with lighter, reddish-brown patches and is characterized by a complex, cracked, and layered texture. The cracks are irregular and run in various directions, creating a rugged appearance. The lighting is somewhat uneven, highlighting the ridges and shadows in the crevices.

Ingurumena: planetarekiko konpromisoa

KLIMA KRISIAK INGURUNE NATURALAREKIN
DUGUN HARREMANA BERRASMATZERA
ERAMAN BEHAR GAITU.

**Erregai fosiletan oinarritutako ekonomia linealaren
eredua uztera eta energia berriztagarrietan oinarritutako
ekonomia zirkularren eredurako bidea egitera
behartuta gaude.**

Aitortzen dugu, arazoaren parte garenez, konponbidearen parte ere izan nahi dugula. Horregatik, karbono aztarna murrizteko eta gure ekoizpen prozesuetan erabiltzen ditugun materialak modu efizienteagoan erabiltzeko lan egiten dugu.

8.1. Ingurumen kudeaketa

(2-23, 2-24, 2-25, 3-3)

ONNERA Groupen jabetzen gara ingurunearekin eta ingurumenarekin dugun erantzukizunaz, eta gure helburua da kutsadura prebenitzea, gure jarduerak ingurumenean sor ditzakeen inpaktu kaltegarriak minimizatzeko. Gure produktuen diseinuan ingurumen irizpideak sartzea eta kutsatzaileak ez diren prozesuen eta materialen erabilera sustatzea.

ONNERA Groupen ISO 14001:2015 nazioarteko arauaren bidez ziurtatu ditu bere hiru lantegi nagusiak (Fagor Industrial, Efficold eta Onnera Laundry Bartzelona), eta, horrekin, lantegi horietan ingurumen kudeaketa egokia egiten dela bermatzen dugu. Gainerako lantegiek ingurumen kudeaketa diharduen pertsona bat dute.

Kudeaketa Integratuko Sistemaren gure politikak (segurtasuna, ingurumena eta kalitatea) ingurumena babesteko eta kutsadurari aurrea hartzeko dugun konpromisoa islatzen du, gure jarduerak sor ditzakeen ingurumen inpaktu kaltegarriak minimizatzeko, gure produktuen diseinuan ingurumen irizpideak sartzeko eta kutsatzen ez duten prozesuen eta materialen erabilera sustatzeko konpromisoarekin batera.

ONNERA Groupen ingurumen inpaktu esanguratsua gure makinek bere bizian zehar izaten duten energia eta ur kontsumoan zentratuta dago. Produktuaren garapenean ahalegin handiagoa egiteak, gure produktuaren kalitatea bermatzeaz gain, energetikoki eraginkorrak diren produktuak diseinatzea dauka oinarrian. 2022an merkaturatu duguna:

- iKORE labeen gama berria, energia eraginkortasunari dagokionez %16ko hobekuntzarekin
- Hozte produktuak ekoetiketatzeari lotuta daude, arauz. Taula hauetan 2022an 2021arekin alderatuta egindako aurrerapenak ikus daitezke, lehen letretan ziurtatutako produktuen kopurua handituz:

Energia eraginkortasunaren letrak	Artikulu kop.	%	Artikulu kop.	%
	2021		2022	
A	294	% 6,4	597	% 5,2
B	387	% 8,5	557	% 4,8
C	1.804	% 39,5	4.948	% 43,0
D	1.100	% 24,1	3.075	% 26,7
E	584	% 12,8	1.192	% 10,4
F	207	% 4,5	873	% 7,6
G	190	% 4,2	270	% 2,3
Guztira, altzariak (2021)	4.566	% 100,0	11.512	% 100,0

Garbitegi negozioiak ura berreskuratzeko tanke handiak eta bero ponpa duten lehorgailuak kaleratuko ditu 2023an.

Klima aldaketak gure enpresan dituen inpaktuak ere aztertzen ditugu, eta hauek dira eragin handiena duten gai materialak:

Ontzi garbigailuetan beste jauzi kualitatibo bat emango da uraren eta energiaren kontsumoan, gaur egun lantzen ari diren eta 2024an merkaturatuko diren garraio uhala duten ontzi garbigailuen jaurtiketarekin.

Gai materiala	Nola eragiten dion ONNERA Groupi	ONNERA Groupen lantzen ari diren ekintzak
Energia eta klima aldaketa (Emisioak)	Klima aldaketaren ondorioz, legediak gogortu egin dira, emisioen murrizketa sustatzeko eta baliabideen kontsumoa murrizteko	<ul style="list-style-type: none"> * Gure karbono aztarnaren kalkulua egitea, 3. irismeneraino * Ekoizten ditugun produktuen bizi kontsumoak murriztea * Inbertsioak fabrika lantegietan, energiaren eta uraren kontsumoak murrizteko
Ura	Ur eskasiak eragina izan dezake ditugun lantegietako ur murrizketetan, baita merkatuaren eskakizunen mailan ere, gure produktuen ur kontsumoak ahalik eta gehien murrizteko	<ul style="list-style-type: none"> * Ura birzirkulatzeko sistemak, produktuak egiaztatzeke ura behar duten instalazioetan * Gure produktuetan ur kontsumoa murrizteko proiektuak * Garbigailuetarako ura birzirkulatzeko tankeak
Finantza sendotasuna	Klima aldaketak eragina izan dezake gure negozioaren finantza sendotasunean, baldin eta ez baditugu behar diren egokitzapenak egiten legeria berrien mailan eta produktua eskakizun berrietara egokitzeko	<ul style="list-style-type: none"> * Gure karbono aztarna ezagutzea, epe ertainera murrizteko helburuak eta ekintzak markatzeko * Gure produktuak merkatuko eskakizunetara egokitzea

Ingurumen jarduera hobetzeko 2022an ONNERA Groupen egindako inbertsio nagusiak hauek dira:

- Zelula fotovoltaikoak ezartzea Efficolden lantegian
- Zelula fotovoltaikoak ugaltzea ONNERA Laundry Bartzelonako lantegian
- Aire birzirkulatuz girotzeko sistema berria ONNERA Laundry Bartzelonan
- Lantegi nagusiko bulegoetan argiak aldatu, eta LED argiak jartzea

Argi kutsadura ez da Taldeko ekoizpen lantegietarako araututa dagoen ingurumen alderdi bat, baina, duen eraginagatik, argiztapen sistemen instalazio eta erabilera eraginkorra bultzatzen da, kontsumo txikiko argiak jartzearen alde eginda.

ONNERA Groupen jarduerak ez dio eragiten biodibertsitateari eta ez du inpakturik eremu babestuetan.

08. Ingurumena: planetarekiko konpromisoa

8.1. Ingurumen kudeaketa

2022an, 2021ean bezala, ez da zigorrik jaso ingurumen arauak ez betetzeagatik. Arrisku horiek estaltzeko, Fagor Industrial S.Coop.ek ingurumen aseguru bat du.

Hauek dira ONNERA Groupek ingurumen arriskuen prebentzioan erabilitako baliabideak:

IKS-SGArri egotzitako Gastu Zuzenak (eurotan)	2022	2021
ISO 14001 ziurtagiria	11.626	12.835
Segurtasun kontseilaria	7.866	11.850
Ingurumen eskakizunei buruzko aholkularitza	21.650	30.127
Arratoi garbiketa, desinfekzioa + deskutsatzea	8.177	16.404
Hondakin geldoen kudeaketa (papera/kartoia, egurra, plastikoa, zaborra)	225.339	197.581
Hondakin arriskutsuen kudeaketa	15.107	13.647
Uraren analitikak (isurkien kontrola)	4.197	5.544
GUZTIRA	293.964	287.988

Ingurumen arriskuen prebentziora bideratutako baliabideak hazten joan dira urteetan zehar.

ISO 14001 ziurtagiria duten hiru fabrikazio lantegiek plan bat dute, eta hor gerta litezkeen larrialdi egoerak identifikatzen dira eta gerta litezkeen larrialdi egoera horiei eta benetako gertakariei erantzuteko sistematika ezartzen da, ingurumenaren eta langileen segurtasun eta osasunaren aurkakoak diren ondorioak prebenitzeko edo horiek arintzeko.

8.2. Emisioak eta klima aldaketaren aurkako borroka

(3-3, 2-25, 2-26, 305-1, 305-2, 305-3, 305-4, 305-5, 305-7)

2020an kalkulatu zen lehenengo aldiz ONNERA Groupen karbono aztarna, hiru irismenetan, kanpo aholkularitza baten laguntzarekin. Gaur egun proiektu batean murgilduta gaude, MONDRAGON Korporazioak eta korporazioko beste kooperatiba batzuek bultzatua, erabiltzeko tresna erraz bat garatzeko eta gure erakundearen karbono aztarnaren hiru irismenak kalkulatu ahal izateko. Helburua da berotegi efektuko gure gasen (BEG) emisioen ezaugarriei buruz gehiago jakitea, eta horiek kalkulatzeko garaietan autonomoak izan ahal izatea. Proiektu horrekin 2022ko maiatzean hasi ginen, eta aurreikusten da 2023ko apirilean amaituko dugula; horregatik, txosten honetan ez ditugu 2021eko eta 2022ko 3. irismenak aurkeztuko, eta 2023ko txostenean aurkeztuko ditugu.

Hurrengo urratsa, 2023an tresna definitu ondoren, eta 2021. eta 2022. urteetako 3. irismenera arteko kalkuluak egin badira, 2024rako urratsa berotegi efektuko gasen emisioak murrizteko helburuak zehazten hastea izango da.

Taula hauetan, ONNERA Groupek egindako BEG emisioak ikus ditzakegu. Kalkuluak GHG Protocol estandarrari jarraituz egin dira.

BEG zuzeneko emisioak, 1. irismena:

	2022 (tCO ₂ eq)	2021 (tCO ₂ eq)	2020 (tCO ₂ eq)
Espainia	1.014,89	1.008,56	596,28
Frantzia	127,99	153,68	91,06
Polonia	375,81	303,86	228,83
Mexiko	189,51	94,79	20,95
Guztira	1.708,2	1.560,89	937,13

Kalkulurako erabilitako 1. irismeneko emisio faktoreen iturriak:

- Karbono Aztarnaren Erregistroa. 2021eko apirila, 17. bertsioa
- IPCCren Laugarren Ebaluazio Txostenean adierazten diren berotze atmosferikoko potentzialak (517/2014 Erregelamendua)

2021arekin alderatuta, BEG emisioetan izandako %8,6ko igoera hori iturri mugikorren emisioen gorakadak eragin du, lan bidaietan autoekin erregai gehiago kontsumitu delako, eta baita zati txiki bat hozteko instalazioen emisio iheskorrengatik ere.

BEG zeharkakoa emisioak, 2. irismena:

	2022 (tCO ₂ eq)	2021 (tCO ₂ eq)	2020 (tCO ₂ eq)
Espainia	2.124,3	153,85	1.563,81
Frantzia	8,5	8,21	7,43
Polonia	1.289,9	1.120,22	848,09
Mexiko	1.027,7	1.023,05	705,58
Guztira	4.450,4	2.305,33	3.124,93

Kalkulurako erabilitako 2. irismeneko emisio faktoreen iturriak:

- Karbono Aztarnaren Erregistroa. 2021eko apirila, 17. bertsioa
- IEA (2021), Emission Factors. Values for 2019.

Berotegi efektuko gasen emisioen gorakada gertatu da, hain zuzen, 2021ean Efficolden Jatorri Bermeekin ziurtatutako energia elektrikoa kontsumitzen aritu zirelako, baina 2022an ez zen hala izan, planta horretan plaka fotovoltaikoetan inbertitu zelako. 2023an berriz kontsumituko da jatorri berriztagarriko energia.

BEG zeharkakoa emisioak, 3. irismena:

	2022 (tCO ₂ eq)	2021 (tCO ₂ eq)	2020 (tCO ₂ eq)	2019 (tCO ₂ eq)
Espainia	-	-	7.690.811,70	8.009.281,30
Frantzia	-	-	923.625,60	850.891,83
Polonia	-	-	1.867.101,36	1.846.462,05
Mexiko	-	-	1.324.900,02	2.945.142,19
Guztira	-	-	11.806.438,68	13.651.777,38

* 2021eko eta 2022ko 3. irismena 2023an kalkulatu da, garatzen ari garen tresnarekin. Kasu honetan, 2019ko datua ere emango dugu, aurreko bi urteetako bilakaera ikusi ahal izateko.

2019a izan da 3. irismeneko emisioak kalkulatzeko lehen urtea erakunde osoarentzat.

BEG emisioak kalkulatzeko abiapuntuko urtea 2019a izan da eta ISO 14064-1-2019 metodologiari jarraituz kalkulatu da. BEG emisioen kalkulua 2019an egin zen lehen aldiz 2018ko EINFerako, baina une horretan erabilitako metodologia ez zen oso zehatza. Bikaintasunaren eta jasangarritasunarekiko konpromisoaren etengabeko bilaketan, lehen aipatutako metodologiara aldatzea erabaki genuen.

Kalkulurako erabilitako 3. irismeneko emisio faktoreen iturriak:

- DEFRA 2019. 1.2 bertsioa
- IEA International Energy Agency Report 2020
- Ecoinvent 3.6. database
- IO DEFRA 2019 Database
- IPCCren Laugarren Ebaluazio Txostenean adierazten diren berotze atmosferikoko potentzialak (517/2014 Erregelamendua)

Hona hemen 2019. eta 2020. urteetako karbono korporatiboaren aztarna; izan ere, lehen aipatu dugun bezala, 2021eko eta 2022ko 3. irismena ezin izan dugu oraindik egin, ez dugulako amaitu kalkulu tresnaren proiektua:

	2020 (tCO ₂ eq)	2019 (tCO ₂ eq)
Espainia	3.139,16	1.162,41
Frantzia	136,5	161,9
Polonia	1.665,7	1.324,7
Mexiko	1.217,2	1.117,8
Guztira	6.159	3.766,8

08. Ingurumena: planetarekiko konpromisoa

8.2. Emisioak eta klima aldaketaren aurkako borroka

Emisioei dagokionez, ONNERA Group barruan, Fagor Industrial da atmosferarako emisio iturriak dituen lantegi bakarra, zehazki, bi:

1. Pintura kabinako propanozko erregailua, . neurtzen diren kutsatzaileak: CO, NOX, SO2 eta Opakotasuna.
2. MIG soldadura robotaren xurgapena, .neurtzen diren kutsatzaileak: partikulak.

Bi foku horiei 2017ko apirilean eman zitzaaien alta, eta Kontrol Erakunde Baimendu batek egin zituen neurketak eta dagokien kontrola, eta emaitza egokia izan zen ezarritako mugen barruan.

Hauek izan ziren 2017ko emaitzak:

CO: . Neurtutako balioa: 68 ppm; - Mugako balioa: 500 ppm

NOX: . Neurtutako balioa: 23,5 ppm; - Mugako balioa: 300 ppm

SO₂: Neurtutako balioa: 28 gr/Nm³; - Mugako balioa: 850 gr/Nm³

Opakotasuna: Neurtutako balioa: <1E.Bacharach; Mugako balioa: 2 E.Bacharach

2022an planifikatutako hurrengo berrikuspena egin zen, baina ikuskapena egiten digun erakunde ofizialak jakinarazi zigun 2017ko abenduaren 23an argitaratutako 1042/2017 Errege Dekretua dela eta, pintura kabinako propano erregailua C Taldea izatetik - Taldea izatera pasatzen dela, eta, beraz, ez zaiola neurketarik egin behar. Beraz, 2022an MIG soldadurako robotaren xurgapenaren neurketak bakarrik egin dira, eta emaitza ona izan da:

Balio neurtua <1,7mg/Nm³ Eta emisioaren muga balioa (VLE) 150mg/Nm³

Hurrengo azterketa 2027. urterako dago planifikatuta.

Kutsadura akustikoari eta argi kutsadurari dagokionez, berriz, gure instalazioek sortutako zarata eta argi mailek ez dituzte legez ezarritako mugak gainditzen.



8.3. Baliabide naturalen kontsumo arduratsua

8.3.1 Energia kontsumoa

(302-1, 302-3, 302-4)

Energia kontsumoa erakundearen barruan:

Erregai motak	Erregai kontsumoa 2022 (kWh)	Erregai kontsumoa 2021 (kWh)
Propanoa	1.541.485	1.638.371,1
Gas naturala	2.755.820	2.987.593,3
Elektrizitatea	16.568.782	15.957.851
Kontsumoa, guztira	20.866.087	20.583.815
Autosortutako elektrizitatearen kontsumoa (kWh)	649.403 (% 3,9)	75.413 (% 0,47)

(*) Propano kontsumoaren kalkulua litroetatik kWh-ra pasatuta dugu, bihurketa faktoreen bidez:

1 kg propano = 13,385 kWh

1 litro propano = 0,51 kg

2022an, erakundearen barruan autosortutako energia elektrikoaren kopurua handitu da, 2021ean %0,47koa izatetik 2022an %3,9koa izatera, hain zuzen, Efficolden plaka fotovoltaikoak instalatu direlako eta jada ONNERA Laundry Bartzelonan genituenak handitu direlako.

2022an energia berriztagarriaren kontsumoa murriztu da, 2021arekin alderatuta, Efficolden plantak ez duelako GdOsekin ziurtatutako energiari kontsumitu 2022an, aurten plaka fotovoltaikoetan inbertitzearen alde egin dutelako, baina asmoa da berriz ere jatorri berriztagarriko sareko elektrizitatea kontsumitzera pasatzea 2023an.

Energia kontsumoa Onnera Group erakundearen barruan	2022	2021
Kontsumitutako erregai ez-berriztagarria (kWh)	4.297.306	5.594.003
Kontsumitutako erregai berriztagarria (kWh)	0	0
Jatorri berriztagarriko elektrizitatearen kontsumoa (kWh)	5.916.374 (% 28,3)	11.402.380 (% 52,9)
Jatorri ez-berriztagarriko elektrizitatearen kontsumoa (kWh)	10.652.408	4.555.471
GUZTIZKO energia kontsumoa erakundearen barruan (kWh)	20.866.087	21.551.854

2022ko energia intentsitatea, 2021ekoarekin alderatuta, murriztu egin da: 0,07kWh-tik 0,05kWh-ra. Energia intentsitatea kalkulatzeko, energia kontsumoa salmenten zenbatekoarekin zatitzen dugu, erregaiak eta elektrizitatea barne.

08. Ingurumena: planetarekiko konpromisoa

8.3. Baliabide naturalen kontsumo arduratsua

8.3.2 Ur kontsumoa

(303-1, 303-5)

UR KONTSUMOA (megalitroak)	2022	2021
Ur kontsumoa eremu guztietan	63,82	54,98

ONNERA Groupek ez du estres hidrikoa duen guneeetako urik kontsumitzen, eta ez du ura biltegitratzeko aldaketarik egiten.

Onnera Groupen ur kontsumoa handia da garbigailuak eta ontzi garbigailuak egiten diren plantetan, hau da, Fagor Industrialen eta Onnera Polanden. Bi lantegiek ura birzirkulatzeko sistema bat dute, kontsumoa murrizteko.

2022ko ur kontsumoaren igoera 2021ekoa baino %16 handiagoa izan da, baina kontuan izan behar da salmentak %37 igo direla. Konparazio horretatik ondorioztatzen da gure prozesuetan eraginkortasun handiagoa dagoela baliabide horren erabilerari dagokionez.

8.3.3 Lehengaiak eta materialak

(301-1, 301-2)

Talde mailan kontsumitzen diren lehengai nagusiak aparatuen egitura osatzen dutenak dira, kalitate desberdinetako txapak, alegia. Beste lehengai batzuk ere kontsumitzen dira, hala nola olioak, plastikoa eta abar, baina ekoizpen mailan ez dira esanguratsuak. Hauek dira guztirako kontsumoak tonatan:

Kontsumoa t-tan	2022	2021
Herdoilgaitza	9.016,9	10.380,5
Galvanizatua	9.701,5	7.515,4
Burdina	552,4	450,7
Egurra	3.293,7	6.099,1
Kartoia	1.745,3	1.843,4

Txaparen kontsumoak (goiko taulako lehen hiru kontzeptuak) 2022an izan duen igoera %5ekoa izan da 2021arekin alderatuta, nahiz eta salmentak %37 handitu diren. Horren arrazoia da piezak ebakitzean txaparen kontsumoa optimizatzeko ekintza batzuk egiten ari direla, bai eta txaparen eremuan txapa piezen barneko txatarrazioak murrizteko kalitate ekintzak ere.

2022an erakundearen produktu eta zerbitzu nagusiak ekoizteko erabili diren lehengai ez-berriztagarrien pisua:

Lehengai ez-berriztagarriak	2022	2021
	Peso (Kg)	Peso (Kg)
Burdina	552.400	450.700
Herdoilgaitza	9.016.900	10.380.500
Galvanizatua	9.701.500	7.515.400
Guztira	19.270.800	18.346.600

2022an erakundearen produktu eta zerbitzu nagusiak ekoizteko erabili diren lehengai berriztagarrien pisua:

Lehengai berriztagarriak	2022	2021
	Peso (Kg)	Peso (Kg)
Egurra	3.293.700	6.099.100
Kartoia	1.745.300	1.843.400
Guztira	5.039.000	7.942.500

8.4. Ekonomia zirkularra eta hondakinen kudeaketa

(103-1, 103-2, 103-3)

Gure politikan adierazi bezalaxe, ingurumena babesteko eta kutsadura prebenitzeko ahalegina egiten dugu, gure jarduerak sor ditzakeen ingurumen inpaktu kaltegarriak minimizatuta. Hondakinak gure jarduerak sortzen duen eragin kaltegarri horren parte direla jakinda, gure helburua da sortzen ditugun hondakin gehienak berrerabiltzea eta berrerabili ezin diren hondakin gehienak birziklatzea. Horretarako, lantegi guztiek hondakinak bildu eta garraiatzen dituzte kudeatzaile eta garraiolari baimenduen bidez, gero hondakinen kudeatzaile horiek ahalik eta gehien berrerabili eta birziklatzeko.

Hondakinak hondakin arriskutsu eta geldoetan sailkatzen dira eta horien kudeaketa desberdina da, motaren arabera.

ONNERA Groupen sortu diren hondakin nagusiak:

Hondakin geldoak/ez-arriskutsuak/ hiri hond	2022	2021
Txatarra: burdina + galv (t)	3.399	2.992
Txatarra: herdoilgaitza (t)	2.200	2.424
Egurra (t)	827	752
Hiri hondakinak (t)	251	422
Kartoia / papera (t)	447	414
Plastikoa (t)	43	196
Hondakin geldoak, guztira (tn)	7.168	7.201

Hondakin arriskutsuak	2022	2021
Kutsatutako materiala (kg)	6.403	6.549
Kutsatutako plastikozko ontziak (kg)	8.450	6.304
DISOLBAGARRI org. ez-halogenatua (kg)	7.004	4.972
Metal hautsa (kg)	3.905	3.584
Kutsatutako metalezko ontziak (kg)	1.867	2.039
Aerosolak (kg)	1.472	1.398
Hondakin arriskutsuak, guztira	29.101	24.846

2022an sortutako hondakinak %13 igo dira 2021arekin alderatuta, ekoizpen maila handitu egin delako.

08. Ingurumena: planetarekiko konpromisoa

8.4. Ekonomia zirkularra eta hondakinen kudeaketa

Taula honetan, 2022an deuseztatzera bideratu ez diren hondakinak ikus daitezke, osaeraren arabera sailkatuta. Atzetik datozen taulek balorizazio eragiketen arabera sailkatzen dituzte hondakin horiek:

Desagerrarazte- ra bideratuta EZ dauden honda- kinak, osaeraren arabera xehatuta (Tn)	Fagor Industrial		Efficold		Onnera Laundry Bartzelona		Onnera Mexiko		Onnera Poland		Danube		Onnera Contract		Pisua, GUZTIRA	
	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021
Kartoia	108,8	111,3	153,2	128,0	39,4	31,5	88,8	99,7	53,0	41,0	0,0	0,0	4,0	3,0	447,2	414,5
Egurra	200,7	158,7	321,6	367,0	62,4	51,5	175,6	151,7	41,0	0,0	15,0	13,0	11,0	10,0	827,3	751,9
Txatarrak	1809,7	1614,5	1793,2	1643,0	795,1	570,7	455,7	887,0	532,0	515,0	110,0	93,0	104,0	93,0	5559,7	5416,2
Plastikoa	0,7	160,0	0,0	4,0	0,1	1,1	27,3	17,1	14,0	12,0	0,0	0,0	1,0	2,0	43,1	196,2
Kutsatutako plas- tikozko ontziak	0,2	0,3	7,3	4,8	0,3	0,4	0,3	0,4	0,330,3	0,4	0,0	0,0	0,0	0,0	8,4	6,3
Disolbatzaileak	0,5	0,4	6,5	4,5	0,0	0,0	0,0	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	7,0	5,0
Metal hautsa	2,1	2,0	1,0	0,7	0,0	0,0	0,2	0,4	0,5	0,5	0,0	0,0	0,0	0,0	3,9	3,6
Kutsatutako me- talezko ontziak	0,6	1,6	1,2	1,2	0,0	0,0	0,0	0,3	0,1	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	1,9	3,2
Aerosolak	1,0	0,5	0,2	1,2	0,1	0,0	0,0	0,3	0,2	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	1,5	2,0
GUZTIRA	2124,0	2049,0	2284,0	2154,0	897,0	655,2	748,0	1157,0	641,0	569,0	125,0	106,0	120,0	108,0	6940,0	6799,0

Desagerraraz- tekoak EZ diren hondakinak	Fagor Industrial		Efficold		Onnera Laundry Bartzelona		Onnera Mexiko		Onnera Poland		Danube		Onnera Contract		Pisua, GUZTIRA	
